

FEMINISMOA, ZUTIK: Herri eta auzoetako hormetan idatzi zen mugimendua, erakusketa batean > 16

IOSUNE MURILLO: «Senarrarekin bizitzen hastean konturatu nintzen genero arrakalaz» > 22

2022ko martxoaren 5a | XVI. urtea • 764. zenbakia
0,50 euro

GAUR8

mila leiho zabalik
www.gaur8.info



HERRI ESPERIMENTUA BEASAINEN,
BENETAKO KONTZILIAZIOAREN XERKA



Laida Lertxundi artistaren obra aitortuz 04

Ekuadorren bortxaketen biktimek abortatu dezakete, Lassok galarazten ez duen bitartean 08

Kontziliazioaren aldeko herri esperimentua Beasainen 12

Feminismoa, herri eta auzoetako hormetatik erakusketara 16

Elkarrizketa: Iosune Murillo, Kern-Pharma txirrindulari taldeko prestatzailea 22

Programa dezagun mundua morez 28

Juantxo Egañaren behatxulotik 31



SINADURAK:

- 03 **Maite Ubiria Beaumont:**
Etxearen erabilera da gakoa, ez jabearen jatorria
- 10 **Saioa Aginako Lamarain:**
Bidegurutzeak
- 11 **Iñaki Altuna:** Geopolitikari eta geoestrategiari larriki loturik
- 20 **Ana Elozegi Serna:** «Hementxe dala, hementxe dala...»
- 21 **Iker Barandiaran:** Nahi adina
- 26 **Unai Gaztelumendi**
- 27 **Antton Izagirre:** Hausterreak
- 27 **Miren Azkarate Badiola:**
Kazetari kazetari (II)
- 30 **Olatz Arbelaiz Gallego:**
Mendiak ezagutzeko lagun berria



{ datorrena } **Maite Ubiria Beaumont**

Etxearen erabilera da gakoa, ez jabearen jatorria

Heldu den apiriletik landa, Amsterdamen higiezonei buruzko espekulazioaren aurkako legea sartuko da indarrean. Eskuin muturra alde batera utzita, liberalek zein kontserbadoreek bat egin zuten iaz Alderdi Laboristak mahai gainean jarri zuen proposamenarekin. Ondorioz, etxebizitza sozialetan ez ezik merkatu librean eskainitako alokairuzko egoitzetan ere eragina izanen duen araua estreinatuko du Herbehereetako hiriak. Lehenagotik ere, eskuinak alokairuen gorakadari aurre egiteko hainbat erabaki hartu zituen. Alferrik. Neurri horiek guztiek espero baino emaitza eskasagoa eman zutela ikusita, sektore pribatuaren bultzadapean gizendutako alokairuzko etxebizitzaren multzoari begira prezioa mugatzeko aukera hobetsi du 873.000 biztanle inguru dituen hiriak. Horrekin batera, etxebizitzaren salerosketetan ere esku hartzeko parioa egin du Amsterdamek. Hala, urtero 8 milioi turista inguru hartzen dituen hirian teila erosi nahi duen orok baldintza zehatza onartu beharko du: lau urtean ezin izanen du etxe hori saldu.

1.233 kilometro. Hori da Amsterdam eta Baiona artean dagoen distantzia fisikoa. Izan ere, gaur bertan Euskal Elkargoko Herriarteko Kontseiluak, kanalen hiriak egin bezala, aitzinetik harturiko erabakia zuzentzeko parada ukanen du, zehazki epe laburreko alokairu turistikoek urte osorako alokairuen eskaintzan eragindako kaltea konpentsatzeko aldera. Finean, etxebizitzaren egoerari buruzko azterketak erakutsi duenez, borondate ona baino zerbait gehiago behar da gizartearen oreka arriskupean jarri duen fenomenoari aurre egiteko.

Iparraldeko erakundeak, eratu eta hilabete gutxira, Airbnb bezalako plataformek azken urteotan izan duten hazkundeari muga ezarri nahian araua onartu zuen. Hala, Euskal Elkargoak tentsiopeko eremuan 24

udalerrri sartu zituen. Agerikoa da euskal erakundeak hautatu zuen bidean sakontzeko unea heldu dela. Arazoa handia delako. Esaterako, Hendaian 2016 eta 2020 artean %117 gehitu ziren turismo alokairuak.

2020. urtean argitaratu zen Ipar Euskal Herriko Turismo Bulegoak eginiko txostena. Daniel Oltzomendi buru duen zerbitzuak eginiko bilanaren arabera, pandemiak bete-betean astindu gintuen urtean 11.469.000 pertsona heldu ziren Ipar Euskal Herrira. Horietatik 2.692.000 turista ziren eta gainerako 8.777.000 bisitariak txango bat egitera –hau da, egonaldi labur bat– heldu ziren.

Bilakaera ikusita, turismoak jarduera ekonomikoan duen garrantzia mespretxatu gabe, urte osoan zehar Ipar Euskal Herrian bizi, lan edo ikasten duten herrita-

Alokairu turistikoen kolonizazioari muga jartzeko orduan legea ezin da oztopo izan. Euskal Herritik hurbil, Bordelen, egin dute. Are, Amsterdamen, apiriletik goiti, lau urte beharko dira itxaron etxe bat saldu aitzin

rren oinarritzko premiak lehen lerroan ezartzeko beharrean dago Euskal Elkargoa. Lobbyen presioa handia bada ere, etxebizitza eskubidea hobesteko adostasun zabala dagoela gizartean jakina da. Iazko azaroan, 30 bat eragilek luzaturiko gonbidapenari jarraituz, 8.000 herritarrek gako-multzoa astindu zuten arazoaren larritasunaz ohartarazteko Baionako karriketan.

EH Baik bere diagnosian «krisi sozial eta klimatikoarekin» lotu duen etxebizitza eskubidearen erronkari zentzuzko irtenbideak bilatzeko «hemengoak» versus «hangoak» ika-mika hutsala gaunditzea ezinbestekoa da. Arazoa ez da nondik datorren maizterra, baizik eta zernolako erabilera ematen zaion etxebizitzari/lurrari. •

SARI BAT BAINO GEHIAGO

Aitzindaria eta proiektzio handikoa den Laida Lertxundi artistaren obra aitortuz

Olaso Dorrea Fundazioaren lehendakari Iratxe Esnaolak, Bergarako Udaleko Kultura zinegotzi Kristina Markinak eta Monzon-Ganuz saria hautatzeko adituen taldeko kide Jesus Mari Lazkano margolariak agerraldi batean aurkeztu dute aurtengo Monzon-Ganuz saria. Zeini emango zaion bagenekien: Jose Luis Elkorok eta Mari Karmen Ayastuyk jasoko dute, «Euskal Herriari eskainitako bizitza osoko lanari» aitormena eginez. Zein artistaren pieza izango zen jakiteke zegoen. Bada, Laida Lertxundi artista bilbotarraren “Landscape Plus” grabatua izango da.

Iratxe Esnaola Arribillagak esan zuenez, «saria euskal artista berriak sustatzeko ere erabiltzen da. Urtero artista berri bati eskaintzen zaio saria diseinatzeko aukera edo aurretik egina duen bat emateko aukera, eta horrela saria bera euskal artista berrien sustapenerako ekimen bihurtzen da, eta modu horretan belaunaldien arteko zubi lana eraiki nahi da». Alegia, sariak sari bat baino gehiago izan nahi duela: euskal artistentzat aukera bat, arte klasikoaren habia eta gordelekua izan zen Olaso Dorrea abangoardiazko arte garaikidearekin lotzeko nodo bat, konexio eta elkarkidetzarako esparru bat. Anbizio handiko ekimen xumea, artea bultzatzeko beste tranpolin bat.

Bergarako Udalak eta Olaso Dorrea Fundazioak artista proposatzeko hiru aditu artistiko izendatu zituzten: Karlos Galarraga (Bergarako Beart arte elkartearen kidea), Jesus Mari Lazkano (margolaria) eta Mikel Lertxundi (arte historialaria

ARTEA / Mikel Zubimendi Berastegi

Monzon-Ganuz sariak Euskal Herriari eskainitako bizitza osoko lanari aitormena egiten dio. Baina euskal artistak sustatzeko ekimen bat ere bada. Aurtengoan, Laida Lertxundiren «Landscape Plus» pieza hautatu dute, arte kontzeptuala eta zinema estrukturala ikuspegi feminista erradikal eta haragituarekin lotzen dituen lana.

eta komisarioa). Haiek hautatu dute Laida Lertxundi, aurtengo sariaren egilea. Nor da, baina, Laida Lertxundi? Artearen munduan sartuak daudentzat ezaguna da, publiko


orokorrarentzat ez hainbeste. Jakin-minak Wikipediara eramaten bazaitu, AEBetan instalatua dagoen euskal artista batez hitz egingo dizu, Roberto Lertxundi ginekologo ospetsu

eta PSEko politikari ohiaren alaba dela aipatuko dizu, mundu osoan erakusketak egin dituela, zinema estrukturalaren ikonoa dela. Baina hori baino gehiago da.

HIZKUNTZA BERRIA

Jesus Mari Lazkanorengana jo dugu aurrena Lertxundiren artean nabarmendu beharrekoak ezagutzeko: «Artea aspaldi urrunduta teknika eta genero tradizionalen muga estankoe-tatik. Eta forma ezagun horiek adierazpen tresna baliagarriak izaten jarraitzen duten arren, gaur egun ikuspegi berriak gehitzen dira, lan artistikoari beste modu batera heltzen

«Landscape Plus» grabatua, Laida Lertxundiren artelana, aurtengo Monzon-Ganuz sariaren irabazlea. OLASO DORREA FUNDAZIOA



diotenak. Ideia eta jarrera desberdinak, hala nola mestizoa, diziplinartekoa, transmedia, collagea, zatikatua, testuinguritik ateratzea, prozesua, disruptiboa, sarean lan egitea eta, batez ere, mugimenduan dagoen irudia, ikus-entzunezkoa eta zinematografikoa, artearen errepertorioaren parte dira». Hau da, Laida Lertxundirena arte garaikidean gero eta ohikoagoak egiten ari diren hizkuntza berrien erakusle bat dela. Betiko espresioek –pintura, marrazkia, eskultura...– mantendu eta hor segituko duten arren, eta hizkuntza berriak bezain baliagarriak izaten jarraitzen duten arren.

Laida Lertxundik egoera berri horri erantzuten diola gehitu du Lazkanok, «etengabe mugitzen ari den obra eskaintzen digu, oso bisuala dena, ikusizko kodeak trukatzuz, non prozesuak garrantzia hartzen duen, oreka bizian eta amaierarik gabe. Kontzeptuzko mugarik gabeko eraikuntza artistikoa da, baina berezko zigiluarekin, ikuspegi ireki eta nahasi bat birdefinituz, ikuspegi pertsonal batetik. Belaunaldien proposamen berri horrek ezarritakoa-ren paradigma aldatzera behartzen gaitu, ezagututakoaren baretasunaren, espero zenaren erosotasunaren eta ezezagunaren aurrean jartzen gaituena».

«Niretzat politena da –dio Lazkanok– ikustea nola kode horiek, hitz egiten dugunean edo pentsatzen dugunean, buroan erabiltzen ditugun arketipo horiek, kode jakin batzuetara eramaten zaituzten, gauza batzuez hitz egiteko kode zehatz batzuetara. 'Landscape Plus' pieza horretan nahasketa hori dago: alde batetik paisaia dago, gainera zeharo aldatuta, basamortuko paisaia bat da, baina dena urdinez, eta

Etengabe mugitzen ari den obra eskaintzen digu, oso bisuala dena, ikusizko kodeak trukatzuz, non prozesuak garrantzia hartzen duen, oreka bizian eta amaierarik gabe

«Paisaia eta gorputza, plazer eta esperientzia gisa interesatzen zaizkit. Egoteak harreman bat sortzen du paisaia eta gorputzaren artean, eta prozesua gero prozesu tekniko bilakatzen da»



Lazkanok, Esnaola eta Markina, obra saritua aurkezten. Jon URBE | FOKU

badirudi Artikoan zaudela, baina ez, Kaliforniako basamortua da; eta gero zuri-beltezean Yoko Onoren pelikula bateko fotograma azaltzen da. Hor mugitzen da».

YOKO ONO ETA JASPER JOHNS

Laida Lertxundiri eskatu eta eman dizkigu bere piezaren eta sortze prozesuaren inguruko xehetasunak. «Deitu, 'Landscape Plus' deitzen da pieza ('Paisaia eta gehiago'). Paisaia gorputzarekin harremanetan jartzeko modu bat da. Argazki analogikoa atera nuen Chocolate Peak mendi tontorretik, Kaliforniako basamortuan. Gero argazki horretatik fotograbatu bat egin nuen, irudi honetan urdina agertzen dena. Eta beste alde batetik, Yoko Onoren 'Fly' filmeko fotograma batekin beste geruza bat gehitu nion, chinecollé teknikarekin. Tintaz egindako beheko marra gorria Jasper Johnsen lanari egindako keinu bat da, berak lerro hauek erabiltzen zituen konposizioak borobiltzeko».

Zergatik Yoko Ono? Zergatik Jasper Johns? Nondik etorri dira, nola, Olaso Dorrearen uni-bertsora? «Fotograma bat erabiltzea zinemari erreferentzia egiteko modu bat da eta bera, Yoko Ono, oinarritzeko figura bat da. Performancean eta soinu-bide experimental batzuk ireki zituen, niri interesatzen zaizkidanak».

Pelikula ezberdina zen hura, gidoirik gabekoa, asko kontatzen zuena. Zinema esperimentala, estrukturala, kontatzeko eta adierazteko beste zinema bat, Laida Lertxundiren zineman, bere artean, azterna utzi duena, arrasto bat. "Fly" pelikulan kamerak emakume biluzi baten gorputzean ibiltzen ari

den euli bati jarraitzen dio, euli hori da Yoko Onoren alter ego-a, detailezko planotan hartuta dagoen intsektua. Yoko Onoren musikarekin lagunduta datorren ospakizun bat da, gorpuzkeraren, giza-kiaren irudiaren ospakizun bat da pelikula.

Horretan badute antza Laida Lertxundik eta Yoko Onok. Biak maiteminduta daudelako artearen espektroko parte esperimentalenarekin. Beraientzako prozesua oso inportantea da. Galderak egitea eta ez hainbeste erantzunak ematea. Ez da bakarrik zer lortuko duten azkenean, baizik eta nola iritsiko diren horraino. Eta prozesu horretan hausnarketa bizi eta handi bat egiten dute beren pelikuletan, eta pelikula egitearen prozesua ez dute ezkututzen, erakutsi egiten dute.

Esan bezala, Jasper Johns artista estatubatuarri egindako keinu bat ere badago, tintaz egindako marra gorria. Jasper Johns pintorea da, eta eskultorea, eta artista grafikoa, oso garrantzitsua izan da XX. mendearen erdialdeko AEBetako artearen garapenean. 1954an nagusi zen espresionismo abstraktua alde batera utzita, guztiz bestelako eran hasi zen pintatzen. Dianak, AEBetako bandera, zenbakiak, alfabetoko letrak... ziren margolanen gaiak. Margolana bera objektu bilakatu zuen, gauza ezagunen erreproduktzio huts izan beharrean. «Objektu den artea» kontzeptuak eragin handia izan zuen handik aurrera, bai eskulturan eta baita pinturan ere. Pop artearen aurrerakia ezarri eta benetako aitzindaria izan zen.

BARRUTIK KANPORAKO BEGIRADA

Laida Lertxundi artista euskalduna da, eta Euskal Herriko



Unibertsitatean irakaslea. Bere praktika artistikoa New Yorken eta Los Angelesen garatu ondoren, eta mundu osoan erakutsi ondoren, egun, Euskal Herrian bizi da eta bertan lan egiten du. Artean espezialistek diotenez, zorroztasun kontzeptuala plazer sentsualarekin konbinatzen du. Eskuz egindako zinema egiten du, besterik behar ez duena: erlaxatu eta gidoia non dagoen ez galdetu. Artisauaren, artistaren, autorearen zinema da, fikzionatu eta digitalizatu gabea, enkoadraketaren eta begirada ernearen zinema. Barrutik kanporako begirada bat konpartitzen du Lertxundik, eskuz egindakoa den eta beste hizkuntza bat duen zinema, egun Santimamiñekoak diruditen 16 mm-ko kamerekin grabatu izan baitu.

Lertxundiren lanak arte kontzeptualaren eta zinema estrukturalaren ideietatik edaten duela esan daiteke, gorputza sortzeko eta produkziarako eremua duela, gorputzetik lan egiteko ikuspegi feminista erradikal bat. Gorputzak eta paisaiak, paisaiak eta gorputzak, ohikoak, etengabeak dira bere obran. Lekuen mia-

keta erakargarri eta autoflexiboak eskaintzeko pronto.

"Landscape Plus" argazki analogikoa da, fotograbatua, eta zinemaren fotograma bat, geruza ezberdinak ditu, Kaliforniako basamortua eta euliak esploratzen duen emakumearen gorputz biluzia, Yoko Ono eta Jasper Johns daude bertan, galdera pila bat eta erantzunik ez. Lurra eta gorputza daude paralelismoan, plazera eta esperientzia, egoera subjektibo eta afektiboek eraldatzen duten geografia bat.

Arte Ederretan lizentziaduna da New Yorkeko Bard College, eta bere biografiak diotenez han jaso zuen Maya Deren Film Award saria graduatzean. AEBetan ikasia denez, hango

«Basamortuari Chocolate Peak tontorretik argazkia egin, eta fotograbatu. Yoko Onoren 'Fly' filmeko fotograma gehitu; baita beheko marra gorria ere, tintaz, Jasper Johns gogoan»

Eskuz egindako artea da, erlaxatzekoa, gidoia non dagoen ez galdetzekoa. Enkoadraketarena, barrutik kanporako begirada ernearena, egun antzinakoak diruditen 16 mm-ko kamerekin

Monzon-Ganuza sariaren kartela.
OLASO DORREA FUNDAZIOA

prozedurak eta erreferentziak oso presente daude bere arte-lanetan. Gaur egun Arte Ederretako irakaslea da UPV/EHUko Masterrean eta Madrilgo Master Lav-en.

Monzon-Ganuza saria ez da aurrenekoa Laida Lertxundirentzat. Olaso Dorrearen unibertsoa, Jose Luis Elkoro eta Mari Karmen Ayastuyren etxea, ez dira bere lanak zintzilikatu diren lehen lekua. Gure Arte saria jaso zuen 2020an, eta Lertxundiren obra New Yorkeko Arte Modernoaren Museoa- orobat MoMa deitua-, Londresko Tate Modern museo britainiarrean, edo Habanako Bienalean erakutsi da, besteak beste. Bakar-kako erakusketak egin ditu Madrilgo Matadero arte garaikidearen zentroan, Londresko Luxen, Glasgowko Tramwayn, Milaneko FuturDomen, Donostiako Tabakaleran edo Bilboko Alondegian.

AITZINDARI ETA ERREFERENTE

Jesus Mari Lazkano pintorearen aburuz, «arte garaikidearen mailan Laida Lertxundi aitzindaria da Euskal Herrian, proiektio oso handia daukan euskal artista bat da. AEBetako artearen erreferentzia oso inportanteak dira bere lanean. MoMan egin ditu erakusketak, San Frantziskon, Los Angelesen; guretzat inportantea da han hankak edukitzea ere, konektatuta egotea. Guretzat, euskaldun moduan, Laida Lertxundi bezalako figurak edukitzea ohore bat da. Arte mailan munduko leku inportanteenekin lotuta dago, horrek beti ekartzen du aberastasuna».

Olaso Dorreari begiratzen dio Lazkanok, eta hari beretik tiraka zera azpimarratu du: «Egungo artistek sarean egiten dute lan, erreferentziak ez

dira bakoitzaren mundu partikularrekoak edo bere ingurukoak bakarrik, leku guztietan egon daitezke, denbora guztietan, maila guztietan. Horizonte sakonak dauzkate eta buruz oso zabalak dira, oso-oso zabalak».

Gorputzaren eta paisaiaren erreferentziak nabarmenak dira Laida Lertxundiren obran. Baina paisaia ez da paisaia eta gorputza ez da gorputza, ez dago alde batetik objektua eta beste aldetik kontestua, subjektua eta objektua ez dira bi eremu... Elementu horiek nahastean joan dira aspalditik eta, oso bereziki, azken hamarkadetan. Paisaia bat jada ez da paisaia objektibo bat, baizik eta nola bizitzen duen jendeak paisaia, paisaia kontzeptual bat da, eta paisaia kultural bat ere bai.

Nahasketa prozesu horretan nola ikusten dugu gaur egun paisaia? Ba begiradaren arabera, erabiltzen dituzun tresnen arabera. Laida Lertxundik erabiltzen dituen tresnak gorputza eta paisaia dira. Paisaia beste gorpuzkera bat delako, beste gorputz modu bat, aldatzen da, bizi da, bere eraldaketa prozesuak jarraitzen ditu eta Lertxundik bien arteko harreman hori fokuan jartzen du: ea, zer pasatzen da hemen? Eta bere artean garrantzitsuagoak dira egiten dituen galderak eman ditzakeen erantzunak baino.

PAISAI...A...

Interesantea da joera: lehen, arte mundua teknika eta prozeduren arabera banatzen zen: pintura, eskultura, grabatua... Nahikoa mugatuta zegoen dena. Gaur egun, baina, poliki-poliki muga horiek apurtu egin dira, jende gazteak hizkuntza eta tresna horiek aldatzen ditu, etengabe, edozein modutan. Pintura erabiltzen

dute, eta argazkia, eta ikus-entzunezkoak, eta grabatua, ez nahastu nahasteagatik, baizik eta harreman horretan zerbait berria bilatu nahian. Gaur, zein teknika erabiltzen den ez delako inportanteena ez, baizik eta zer kontatzen den.

Lertxundik, bere lanean etengabekoak diren paisaia eta gorputzaren elementuak gogora ekarrita, plazeraren eta esperientziaren zentzu gisa interesatzen zaizkiola aipatu du. «Paisaian egoteak berak harreman bat sortzen du paisaiaren eta gorputzaren artean. Gorputze prozesu hauek prozesu teknikoak bilakatzen dira». 'Landscape Plus' izatez, ikus-entzunezko eraikinen bilduma bat da (bost film labur eta Lertxundirentzat inportanteak diren hiru zinemagileenak), esperimentaziora bideratua den zinema bat enkodratzen duena, artearen eta zinemaren formarekin begirada erne bat erdian jartzen duena.

Eta "Landscape Plus" pieza bat ere bada, sari bat, eta sari bat baino askoz gehiago. Lertxundiren hitzetan, «bi esperientzia dira. Bat da nik mendian izan nuena, eta bestea, beste emakume batek performance batean izandakoa, eta biek iraupen bat dute. Grabatuan erabilitako teknikek ere denbora eskatzen dute, ez da bat-batekoa. Hirurak iraupen luzekoak dira».

...ETA GORPUTZA

Laida Lertxundiri gustatzen zaio emozioak adierazteko modu hori, desfigurazio puntu batekin, "Landscape Plus" lanean bezala, askotan aurpegiak ikusten ez direla. Gustatzen zaio ageriko modu batean ez interpretatzea, baizik eta elementuen konbinazio baten bitartez interpretazioa sortzea.

Funtsean, formaren eta sentimenduaren arteko gatazka bat errepresentatzen da hemen, nolabait. Desira, galera, grina daudenean sentimendua dago. Baina sentimendutik formara itzultzean galera bat ere badago, kultura batetik bestera itzultzen dugunean bezalaxe, edo esaterako, filmatzearen esperientzia batetik pantailan errepresentatzera jauzi egiten denean.

Barne munduko espazio intimoaren eta Kaliforniako paisaia zabalen magnitudearen artean dabilen pieza bat da, egoera subjektibo eta afektiboek eraldatzen duten geografia bat besarkatu nahian dabilen Lertxundirena. Zinema esperimentalean oinarri duen obra bat, paisajismoaren eta

«Prozesua oso inportantea da. Ez da bakarrik zer lortuko den azkenean, baizik eta nola iritsi horraino. Eta gainera prozesuak ez dira ezkutatu behar, erakutsi egin behar ditugu»

«AEBetan ikasi zuenez, hango prozedurak eta erreferentziak oso inportanteak dira bere lanean. Euskaldun moduan, Laida Lertxundi bezalako figurak edukitzea ohore bat da»


gorputzaren arteko konposizio bat.

Lertxundi ohitua dago narrazioaren forma zinematografikoa urtzera, prozesuaren eta materialtasunaren errebelazioak ordezkatzera. Denbora errealearen eta bizitako esperientziaren sentsazioa sortzen du, formaren

eta forma gainditzen duen esperientziaren artean. Eta honela, bokazio estrukturalista duen bere artearen ertz formalista edo abstraktua tonu emozional batek zeharkatzen du, labankada garden bat bailitzan. Kaliforniako paisaiak gorputzarekin elkarbizitzan jartzen ditu, billarreko bolak bezala, gainontzeko elementuekin elkarriketan eta talka eginez.

Bukatze aldera, galdera egin diogu: Zergatik aukeratu duzu pieza hau Monzon-Ganuza sarirako? «Zineman egiten dut lan, eta grabatuan, zinemari lotuta. Grabatu bat denez, egozia iruditu zitzaidan ematea. Eta gainera, eta niretzat oso inportantea, ditudanen artean gehien gustatzen zaidana da».

Laida Lertxundi, New Yorken eta Los Angelesen praktika artistikoa garatu ondoren, egun UPV-EHUKo Arte Ederretako irakaslea da.
GAUR8



ABORTUA EKUADORREN

Bortxaketen biktimek abortatu dezakete Lassok galarazten ez duen bitartean

Ekuadorren abortua debekatu zuen lehenengo legeak ez zuen haurduna zigortzen, abortua eragin edo aholkatzen zuten medikuak, zirujauak edo emaginak baizik. 1837an ondutako Ekuadorreko lehenengo Zigor Kodeaz ari gara. Bertan, aipamena egiten zitzaion amaren baimenari: haurdunaldia eteteko baimena eman bazuen, abortua eragin zion profesionalak urtebete eta lau urte bitarteko zigorra jasoko zuen; baimenik ez bazen tarteko, bi eta sei urte artekoa.

Herrialdean abortua zigortzeko aurrerantzean erabiliko zen harroina, ordea, 1872ko Zigor Kodeak ezarri zuen; aurreko legedia baino kontserbado-

JENDARTEA / Maddi Txintxurreta Agirregabiria

Otsailaren 17an Ekuadorren onartu zen lege berri baten arabera, bortxaketa baten ondorioz haurdun geratu diren emakumeek 12 astera arte eten ahal izango dute haurdunaldia. Salbuespen gisa, abortatzeko epea 18 astera luzatuko da haurren, nerabeen eta emakume indigenen eta landa eremuko kasuan.

reagoa, eliztarragoa, moralistagoa, autoritarioagoa: berriaz adierazi zuen babeserako ondasun juridikoa «moral publikoa eta familia» zela eta zigortu egingo zituen abortatzen zuten emakumeak. Bekatua delitu izatera igaro zen. Emakumeen sufragioaren aldeko mugimendua AEBetako

mugez landa zabaltzen ari zen bien bitartean.

1938ko Kodeak aldaketa garrantzitsuak ekarri zituen abortuaren gaian. Hasteko, babeserako ondasun juridikoa jada ez zen «moral publikoa eta familia», baizik eta «bizitza». Bestalde, honako kasuetan despenalizatu zen haurdunaldia

Abortuaren eskubideen aldeko ekintzaileak Quitoko Batzar Nazionalaren eraikinaren aurrean.
Rodrigo BUENDIA | AFP

etetea: emakumearen osasuna edo bizitza arriskuan zegoenean eta adimen desgaitasuna zuten emakumeen —«demente» eta «idiota» gisa zeuden jasota Kodean— bortxaketaren ondoriozko haurdunaldien kasuan.

Ia 80 urte igaro behar izan ziren Hego Amerikako herrialdeak Zigor Kode berria ontzeko. II. Mundu Gerra igaro zen, baita Peru eta Ekuadorren artekoa ere, emakumeek botoa emateko eta hauteskundeetara aurkezteko eskubidea erdie-tsi zuten, irauli zen teknologia, aldatu zuen mundua Internetek. Bada, 2014ko Ekuadorreko Zigor Kodeak ez zuen ezein aldaketarik egin emakumeen sexu eta ugaltze eskubideen arloan. Esaldi bat aldatu zuen soilik. «Demente» eta «idiota» adjektiboen ordeztu «ezgaitasuna duen emakumea» adierazpena jaso zuen.

OTSAILAREN 17KO BATZARRA

«Presidentearen jarrera betoaren bidez adieraziko da, Konstituzioak agintzen duen bezala. Nik bizitza errespetatzen dut sortzetik», agertu zuen Guillermo Lasso Ekuadorreko presidenteak Los Rios probintziara egindako bisita batean. Otsailaren 17an, bortxaketa kasuetan abortua arautzen duen legea onartu zen Ekuadorreko Batzar Nazionalan, 1938tik ukitu gabe dagoen legedi atzerakoia aldaraziz. Hurrengo egunean egin zituen adierazpenok presidente eskuindarrak.

Legebiltzarrak onetsitako arau berriari esker, bortxaketen biktimek diren andrazkoek haurdunaldia eten ahal izango dute 12 astera arte; eta salbuespen gisa 18 astera arte, haurren, nerabeen, emakume indigenen eta landa eremuko-



Arau berriari esker, bortxaketen biktima diren andrazkoek 12 astera arte abortatu ahal izango dute; 18 astera arte, haur eta nerabeen, indigenen eta landa eremuko kasuetan

Bortxaketa kasuetan abortatzea zigorgabe zegoen joan den urteko apiriletik, Konstituzio Gorteak hartutako erabaki baten ondorioz. Baina erabakia legez jasotzea falta zen

en kasuan. Orain arte, bortxaketen biktima ziren pertsonak debekatuta zuten abortatzea desgaitasunik ez bazuten aitortuta.

Arau berria Legebiltzarreko 75 batzarkideren aldeko botoei esker onartu zen. 41ek eman zuten kontrako botoa eta 14 abstenitu ziren.

«Gaur Osoko Bilkurak gehiengoaren erabakia hartu du, nesken, nerabeen eta emakumeen orainean eta etorkizunean garrantzi handia duen lege proiektu bati buruzko eztabaida parte-hartzaile, laiko eta demokratiko zabal baten ondoren», adierazi zuen legea onartu berritan Guadalupe Llori Batzar Nazionalako presidentea.

Johanna Moreira legegileak, lege proiektuaren txostenaren arduradunak, halaber, honako hau adierazi zuen: «Araudia Ekuadorreko herriaren eta sexu indarkeriaren biktimen errealitatera egokitzen da». «Emakume helduok herri honetan bortxaketa pairatu duten nesken alde sakrifikatuko gara», gaineratu zuen.

Ganberaren barruan, legegileek bi txosten aztertu zituzten: bata gehiengoarena eta bestea gutxiengoarena; besteak beste, abortua aplikatzeko epe desberdinak proposatzen zituzten. Lehenengo zirriborroak 16 astera arteko abortatzeko baimena jasotzen zuen adin nagusiko andrazkoen kasuan.

Bozketa otsailaren 17rako planifikatu zen, otsailaren 3an Batzar Nazionalaren Osoko Bilkurak bigarren eztabaida amaitu eta hartutako ondorioak azken testuan jasotzeko erabakia atzeratu ondoren.

Lege proiektu hau, beraz, lehen bozketa huts baten ondoren onartu zen. Bozketa horre-



Emakumeen protesta, abortatzeko eskubidearen alde. Rodrigo BUENDIA | AFP



Batzarkideei zuzendutako kartela: «Bizi nahi dut». Rodrigo BUENDIA | AFP

tan ez ziren lortu aurrera ateratzeko behar ziren 70 botoak, eta, beraz, Moreirak ordubeteko etenaldia eskatu zuen testuan aldaketak egiteko. 16 aste epea 12ra jaitsi behar izan zuen azkenean, onartu ostean lehenengo proposatu zen epeak bere alderdiaren barruan ere desadostasunak sortu zituela. «Epeak aldatu behar izan ditugu, gure borondatearen aurka, adostasunei bide emateko», agertu zuen lege proiektuaren sustatzaileak.

Bigarren bozketan, beharrezko babesa lortu zuen testuak.

Bortxaketa kasuetan abortatzea despenalizatuta zegoen joan den urteko apiriletik, Konstituzio Gorteak hartutako erabaki baten ondorioz. Baina legea adostea behar zen horretarako baldintzak finkatzeko.

ALDE ETA KONTRA

Otsailaren 17ko Batzar Nazionalaren eztabaidak harrabotsa sortu zuen herrialdean. Abor-

tuaren aldeko eta aurkako taldeak bozketa baino ordu batzuk lehenago agertu ziren kanpoaldean. Bi muturretako ahotsak entzuten ziren, kontrako mezuek elkarbanatu zuten espazioa. «Ez gehiengo, ez gutxiengo. Bizitzarekin ez da tratuan ibili behar», zioen pankarta batek, eta beste batek, metro gutxira, honakoa: «Abortu klandestinoen ondoriozko heriotza bakoitza, bortxaketatik bizirik atera direnen amatasun behartu bakoitza, zuen erantzukizuna da, batzarkideak».

Bien bitartean, lege honen aldarrikapena Ekuadorreko presidente Guillermo Lasso-ren esku dago. Hark 30 eguneko epea du Erregistro Ofizialean legeari osoko zuzenketa edo zuzenketa partziala aurkezteko eta jada iragarri du egingo duela. Berak deuseztatu dezake azken mendean Ekuadorren abortuaren gaia-ekin erdietsi den aldaketa banaketako bat.

KOLONBIA, PAUSO BAT AURRERAGO

Kolonbiako Konstituzio Gorteak 24. astera arte despenalizatu zuen abortua pasa den otsailaren 21ean, 1837tik Zigor Kodean jasota zegoen eta espetxe zigorrekin ordaintzen zen abortua legeztatuz. Epa berriak, gainera, haurdunaldia eteteko epe luzeenetako bat baimentzen duten herrialdeen artean sartu du Kolonbia, Herbehereak, Kanada, Erresuma Batua edo New Yorken pare.

Orain arte, Kolonbian hiru kasutan jasotzen zen abortatzeko eskubidea: bortxaketa kasuetan, fetuen malformazioa bizitzarekin bateraezina bazen eta haurdunarentzako osasun fisiko edo buru osasuneko arriskua bazegoen. 2006an zehaztu ziren kausal horiek eta, hiruretako bat betetzen ez bazen, debekatuta zegoen haurdunaldia etetea.

Otsailaren 21eko erabakiak Bogotako Gortearen inguruak bete zituen epaia pozez hartu zuten lagunekin: «Latinoamerika osoa feminista izango da!».



Saioa Aginako Lamarain
Psikoterapeuta

Bidegurutzeak

Erabaki gehiegi egunean. Begiak irekitzen ditut goizean eta hautu asko ditut buruan. Kafea tostadarekin edo zukuarekin eta frutarekin hartu aukeratzetik hasi eta asteburuan zer egingo dudan pentsatzeraino. Bizitza erabakiak etengabe hartzea da. Pertsonok egun osoa ematen dugu erabakiak inkontzienteki hartzen, gure emozioek, bulkadek eta intuizioek eraginda. Jaitzen garenetik oheratzen garen arte, hautu batzuk egin eta beste batzuk baztertu behar ditugu. Zer gosalduko dugun hautatzea bezain gauza sinplean, edo zerbait konplexuagoan, hala nola lanpostu bat onartzea edo baztertzea edo bikote harreman bat amaitzea, bidegurutzeak aurkitzen ditugu.

Denok izan dezakegu kezka edo ezinegona dilema garrantzitsuei aurre egin behar diegunean. Inork ez du nahi huts egin eta gero ondorioez damutu behar izatea.

Egia esan, erabaki guztiak ez dira garrantzitsuak maila berean. Askotan ezin da atzera egin eta, gainera, aldaketa handiak eragin ahal dizkiote gure bizitzari; horregatik, okertzeko beldurra izaten da erabaki bat hartzeko arriskuaren beldur ohikoena. Halabeharrez, erabakiak hartzea bizi konstante bat da. Milaka zalantza, kezka, ziurgabetasun, larritasun eta erantzukizunek nahasketan murgiltzen gaituzte, eta

batzuetan geldiarazi eta modu pasiboa bizitzera bultza gaitzakete. Izan ere, okertzeko beldurra benetako amesgaizto bihurtzen duena ez da egoera bera, baizik eta egoera hori nola hautematen dugun, hau da, nola ikusten eta esperimentatzen dugun gertatzen ari zaiguna. Gainera, askotan, aurre egiteko moduak kalte handiagoa egin diezaguke azkenean aukeratzen dugun aukerak baino. Hori, egia esan, gure ezaugarri pertsonalen eta urteen poderioz eskuratu ditugun gaitasunen araberakoa da.

Nahiz eta askotan kontzienteki egorak hertsatzen gaituen eta aukeratzeko nahi genukeen bezain libreak ez garen, ez gara inoiz aske. Sistemetan bizi gara, eta ia konturatu gabe bizi garen tes-

tuinguruak ezartzen dizkigun arauen eta funtzioen mende gaude. Azken batean, testuinguruak eragina du gure erabakietan, gure emozioetan eta errealitatea hautemateko moduan. Askotan, zer egin behar dugun eta hori lortzeko urratsak zein diren aztertzen dugu, eta ez diogu beti erreparatzen testuingurua egokiena den edo horretan nola eragin dezakegun.

Bestalde, bidean aurkitzen dugun oztopoetako bat, erabakiak hartzeko zailtasuna gehitzen duena, “on” eta “txar” dikotomiaren barruan sailkatzeko joera da. Horrela, erabakiak onak edo txarrak ez badira, zer dira? Erabakiak subjektiboak, propioak, pertsonalak, indibidualak, bateratuak eta askeak dira.

Badira pertsona oldarkorragoak, gogoeta-tsuagoak, batzuk aldaketarako joera handiagoa dutenak eta beste batzuk portaera eredu kontserbadoreagoa dutenak. Erabakiak hartzeko beldurrez aukerak aprobetxatzen ez baditugu, eskuetatik ihes egingo digute. Gure begiradapean desagertu egingo dira, zergatik utzi dugun jakin gabe. Erabakiak hartzea ez da batere erraza, argi dago. Hala ere, bizitzak ez du onartzen pasibotasun soila eta gelditasuna. Bizitzarekiko konpromisoak erabakitzea dakar. Azken batean, ez dago huts egitea baino gauza naturalagorik. •



Okertzeko beldurra da erabaki bat hartzeko beldur ohikoena.

Jon HERNAEZ | FOKU

saioaaginako@gmail.com

{ asteari zeharka begira } Iñaki Altuna

Geopolitikari eta geoestrategiari larriki loturik

Geopolitika eta geoestrategia gauza garrantzitsuak dira, eta hala ulertu beharko genuke euskaldunok ere munduan kokatzeko eta mundura begiratzeko garaian. Honez-kerok jakinaren gainean egon beharko genuke, guk ere horiek denak pairatu baititugu; esate baterako, jelkideek AEBei emandako laguntzak ezer gutxi balio izan zuenean Francok eta Washingtonek elkar ulertzea ekiditeko edo, adibidez, 80ko hamarkadan ETak bere ordezkaritza Aljeriatik kanporatua nola izan zen ikusi zuenean, hango gobernua eredu izandako mugimendu iraultzaile baten esku egon arren.

Geopolitika, azken batean, garrantzitsua da gauzak ulertzeko, baita posizioak finkatzeko ere; non bizi garen eta bertako prozesu politikoari eragiten dion ingurunea kontuan hartuta.

Horrek ezin gaitzake ez itsu ez ziniko bilakatu; azken batean, herri txikiei zintzotasunari eta printzipio zuze-nei eustea baino ez zaie geratzen interes handiek agenda markatzen duten mundu honetan. Eta horrela izan beharko du oraingoan ere, azken hamarkadetan nazioartean bizi izan den krisirik handienetariko bategen eztanda egin duenean. Egoera larria da, benetan.

Arazoa ez da bart arratsean hasi, egia da, eta interes ekonomiko eta politiko handiak daude tartean, potentzia handien arteko norgehiagoka. Gerra hotzean jaio-tako NATOren jokabideari arreta eskaini behar zaio. Errusia aspaldi kexu zen egitura militar hori gero eta hurbilago kokatzen ari zitzaioela, SESB desegin ostean adostutakoa urratuz. Geopolitikak esan zigun Kuba Europako ekialdean kokatua balitz arazorik gabe jarri izango zituela misilak 60ko hamarkadaren hasieran, baina AEBetatik ehunka kilometrora egonik, orduan ir-lan baseak jartzeko egindako saioak mundua gerra nuklearraren atarian jarri zuen. Zentzu berean, geopolitika positibo batek NATO Errusiako mugetaraino eraman nahi izatea ez dela aukera egokia ebatzi beharko luke.

Ukrainaren inbasioak, ordea, urrats kualitatibo bat suposatzen du, beste eskala batean jarri baitu inguru hartan jadanik bazen gatazka, gerra zabaldurik eta gerra oraindik are gehiago zabaltzeko arriskua biderkatuz, Errusiak modu ezin argiagotan besteen segurtasuna zalantzan jartzeko borondatea erakutsi duelako. Finlandia eta Suedia ere mehatxatu ditu. Paradoxikoki, mugimendu horrek lurralde horiek NATOrekin nabarmenago lerrokatzea ekar dezake. Ez da neutraltasunerako leku askorik uzten ari.

Putin, nonbait, AEBei egotzi diena egiten ari da. Aldebakartasunetik herrialde osoak txikitzea leporatu zion Washingtoni duela egun gutxi, eta Jugoslavia, Irak eta beste aipatu zituen. Orain, egun gutxitan gauzak asko aldatzen ez badira, Ukraina xehatuta geratuko dela zalantza gutxi dago. Bide batez, oso mezu kezkagarria indartu du mugimendu militar honek: potentzia nuklearra izatea dela norberak nahi duena egiteko bi-

Oso mezu kezkagarria indartu da:
potentzia nuklearra izatea dela norberak
nahi duena egiteko biderik eraginkorrena

derik eraginkorrena. Armamentu lehiarako hauspo berri bat, hondamendi nuklearrerako aukera gehiago.

Gaur egun, bide diplomatikoa ere termino militarretan kokatua dago, gatazka handitzeko bidean baikauden, eta horrela ulertu behar da EBk armak bidaltzeko hartutako erabakia. Arma horiekin ez dute errusiarrak atzera egitea lortuko. Zenbait analistak dio soilik gatazka luzatzeko erabiliko direla, orain negoziazio bat egingo balitz Putinek indar posizioa izan lezakeelako.

Logika negargarriak inposatzen ari diren honetan, kontrako norabideak aldarrikatu behar dira, indarke-riaren intentsitatea jaisten hasteko, elkarrikerak bide-ak indartzeko, nazioen segurtasuna zein autodetermi-nazio eskubidea eta herritar guztien eskubideak barnebilduko dituen konponbideak bilatzeko. •

KONTZILIAZIOAREN ALDE

Herri esperimentu bat abiatu dute Beasainen, inguru hurbilean eragiteko

 **JENDARTEA** / Maider Iantzi Goienetxe

Beasainen berdintasunean bizi” leloarekin garratzen ari diren Herrilab-en proiektu pilotuak adar ezberdinak ditu eta horien artean otsailean merkatariekin egindakoak izan du hedapenik handiena. 35 merkatarik arratsaldeko ordutegia aurreratu dute: 17.00etan zabaldu eta 20.00etan itxi beharrean, 16.00etan ireki eta 19.00etan jaitsi dituzte pertsonak.

Gustura daude. Batzuek diote 16.00etan ez dela hainbeste jende etortzen; besteek, animatzen hasi direla. Baten batek aipatu du 19.00etan itxi ordez 19.30ean ixtea hobea litzatekeela. «Inkestak egin dizkiegu merkatariei zein erosleei. Orain horiek aztertu eta etorkizunari

begira zer neurri har ditzakegun ikusi behar dugu», azaldu dio Leire Artola alkateak GAUR8ri.

Orokorrean, balorazioa «oso ona» dela baieztatu dute herri laborategi honen parte diren guztiek. Hasteko, funtsezkoa iruditzen zaie eragile ezberdina elkarlanean aritzeko bildu izana: erakundeak, merkatariek,

ikastetxeak, elkarteak, enpresak eta herritarrak. Seme-alaba, adinoko edo mendekoen zaintzan eta etxeko arduretan gizon-emakumeek modu orekatuan parte hartzea da helburua, baita bakoitzak bizitzeko eta bere burua zaintzeko denbora gehiago izatea ere. Izan ere, 19.00etatik 20.00etarakoa ordu bat da, bai-

Argi optikaren ataria, «Beasainen berdintasunean bizi» kanpainako kartelarekin. Jaizki FONTANEDA / FOKU

na ordu garrantzitsua. Lehenago afaltzeko aukera ematen du, lasaia egoteko, kirola egiteko, aisialdiaz gozatzeko...

2017an Gipuzkoako Aldundiak eta Beasaingo Udalak lankidetzaz hitzarmen bat sinatu zuten kontziliazio erantzunkidea sustatzeko. Itun horren baitan azterketa sakonak egin ziren, batik batik merkataritzaren, industriaren, hezkuntzaren eta elkarleen ikuspegitik. Eragile horiekin talde motor bat osatu eta ekintza plana jarri zen martxan.

BEASAINDIK HARAGO

Merkataritzaren arloan, eredu izan dituzte Kataluniako Salsona eta Cardona. Herri horiek pandemian hasi ziren ordutegi berriarekin eta 19.00etatik 20.00etarako ordu hori bakoitzak nahi zuenerako erabiltzeko zer garrantzi zuen ikusi zuten. Gainera, frogatu zuten orokorrean ez zekarrela erosketak eta fakturazioa murrizterik.

Beasainek 14.000 biztanle inguru ditu, elkartegintza aberatsa du eta industriak pisu handia du eskualdean. Esperimenturako baldintza egokiak betetzen dituelako hautatu zuten lagin gisa. Miren Elgarresta Foru Aldundiko Berdintasun zuzendariak azaldu duenez, zabaltzeko bakoitzak du Herrilabek. Udazken aldera, emaitza guztiak baloratzean, aztertuko dute zein esperientzia aplikatu ditzaketen beste herrietan.

Aktibatze fase honetan, hiru gako ikusten ditu kontziliazio erantzunkidea lortzeko: «Sentsibilizatzea, komunikatzea eta herritarrek parte hartzea».

MERKATARIEN BEHARRAK

Ainhua Arce Argi optikaren jabea da. Neguan ordutegi murriztua eduki ohi dute, 19.30ean ixten dute, beraz, «ez da sekula-



ko aldaketa izan». Ideia ona iruditu zitzaion lana aurreratzea, bereziki jendea merkatarien to- kian jartzera eta pentsatzera bultzatzeko, ohar dadin haiek ere eskubidea eta beharra dute- la aldaketa txikiren bat egiteko eta bizitzeko denbora gehiago izateko. «Hala esplikatur be- roek ulertzen dute».

19.00etatik 20.00etarako ordu bat da, baina ordu garrantzitsua. Lehenago afaltzeko aukera ematen du, lasaiago egoteko, kirola egiteko, aisialdiaz gozatzeko...

Ainhoa Arce, optikaria: «Gure ordutegia beti izan da txarra. 20.30 arte ez naiz iristen etxera eta tarte txikia izaten dut hurrekin egoteko. Ordutegi berriarekin gehiago egoten naiz»



Ainhoa Arce, Argi optikaren jabea. Jaizki FONTANEDA | FOKU

Optikariak ez du uste ordutegi aldaketagatik jendea gehiago jo- anen denik berandu ixten duten saltoki handietara. Saltoki txi- kietan beste zerbitzu bat bila- tzen dutelako bezeroek, arreta pertsonalizatuago bat, hurbila- goa. Hori eskaintzen dute beste- en aldean.

«Aldaketak ondo iruditzen zaizkiela komentatzen dute. Ba- da jendea arratsaldean lan egiten duena eta berandu etortzen de- na. Ordutegi barnean etor ba- daiteke primeran eta bestela be- rarekin gelditzen gara».

Otsaila ez da hilabeterik jen- detsuena. Horrexegatik aukera- tu zuten martxan jartzeko. Mer- katari batzuek uste dute udan gehiago kostako dela ordutegi honi eustea, jendea beranduago ibiltzen baita. Kontzientziazio lana egin behar dela defendatu du Arcek. Oreka bilatu. 19.00ak arte ez daki, baina 19.30 arte ziu- rrenik jarraituko du.

«Gure ordutegia beti izan da txarra. 20.30 arte ez naiz iristen etxera. Dutxa, afaria... tartetxo txikia izaten dut hurrekin ego- teko eta estres bat izaten da. Or- dutegi berriarekin etxean gehia- go egoten naiz, gusturago,

lasaiago. Lehentxeago ailega- tzen naiz eta ez dut korrika eta presaka ibili behar. Alde horre- tatik aldaketa sumatzen dut». Eguerdian hainbesteko tartea edukita, hori murriztu eta arra- tsaldean lehenago itxi dezakete- la pentsatzen du.

«Nire kasuan hurrek 10 eta 12 urte dituzte eta gure arreta behar dute. Aurrera begira, gu- rasoak ere hor daude. Ez da ba- karrik umeak dauzkagunentzat, guraso helduak dauzkatenen- tzat ere bada». Norbere burua- rentzat ere bai. Horregatik ere parte hartu du, bizitzeko eskubi- dearen alde. Arratsaldea da jen- de gehiena libreago dagoen par- tea eta familia edo lagunekin egoteko aukera ematen du.

LEHENENGO DEIA, AITARI

Hezkuntzaren adarrari dagokio- nez, ikastetxeetan umea gaixo- tu delako edo oharren bat ema- teko, aita duten familietan lehendabiziko deia berari egiten hasi dira amari egin beharrean, genero rolak hautsi nahian. Hi- ru zentro batu dira egitasmora. Tartean Murumendi.

Arrate Leunda bertako ikaske- taburua da. Balantze ona egiten

BIZI ITXAROPENEAN SENDO,
BAINA JAIOTZETAN BAXU

Pandemia garai honetan ere haurren zein adinekoen zaintzaren ardura ia beti emakumeen gain egon da. Ana Asla Asmube Beasaingo emakume taldeko kideak nabarmendu duenez, «bada garaia onartzeko erantzukizunak guztienak izan behar dutela. Denok inplikatu behar dugu gehiago. Etxe bakoitzean landu behar dira harremanak, baina instituzioek ere badute zer egina. Adibidez, familiei laguntza ekonomikoak ematen ahal dizkiete». Araba, Bizkai eta Gipuzkoako jaiotza tasa Europako bigarren baxuena da; aldiz, bizi itxaropena munduko handienetakoa. «Ez al da desorekatua? Denok dugu erronka bat: zer jendarte motatan bizi nahi dugun gogoetatzea», aldarrikatu du.



du. «Berriz etorri da gaia, baina gu aspaldi hasita gaude eta nabaritzen da atzetik egindako lana». Oroitzen du duela urte batzuk gehienbat amak etortzen zirela umeen bila zein bileretara. Garaiak aldatzen doaz eta aitek gero eta gehiago inplikatzan ari dira. Halere, hurbiltzen diren erdiak baino gehixeago amak dira oraindik. Hiru kasutik batean bi gurasoak etortzen dira eta gutxi batzuetan aita bakarrik.

«Ondo hartzen dute. Batzuetan esaten digute: ‘Niri deitu didazu, lanean nago, ama etxean dago’, eta guk: ‘Esango diozu bikotekideari?’. Gustatzen zaie aita kontuan hartzea, eurak ere inportanteak dira. Gurasoen foroetan sartzen saiatzen gara. Bada foro bat guraso elkartearena eta beste bat ekintza zehatzetarako, inauteriak antolatzeako kasu. Gehienbat emakumeek parte hartzen dute eta batzuetan arrotz sentitzen dira».

Aplikazio bat dute sakelakoaren bidez tutoreak familiarekin

harreman zuzena izateko. Bi guraso dauden kasuetan, biek jasotzen dute mezua eta bietako batek idazten badu biek irakur dezakete. Banandutako bikoteek aplikazio bera edo bakoitzak berea izateko aukera dute. Kasu hauetan ere biei deitzen diete eta behar izanez gero bi bilera egiten dira.

ERREFERENTEAK

«Haur Hezkuntzako umeak oraindik emozionalki amaren inguruan daude, murrizketak ere amek hartzen dituzte normalean. Etorkinen kasuan ere gehienetan gizonak kanpoan ari dira lanean eta emakumeak librexeago daude. Saiatzen gara ordutegiak malgutzen, arratsaldean zain gelditzen edo goizean lehentxeago hasten, biak etortzen badira aberatsagoa delako bilera», agertu du Leundak.

Ate irekiak egiten dituzte metodologia erakusteko, ez baita berdina kontatzea eta ikustea, eta gurasoek aukera dute umeak lanean ari direla etortzeko. «Goizetan eta arratsaldetan egi-

Duela urte batzuk gehienbat amak etortzen ziren ikastetxera. Garaiak aldatzen doaz eta aitek gero eta gehiago inplikatzan ari dira. Halere, hurbiltzen diren erdiak baino gehixeago amak dira oraindik. Hiru kasutik batean bi gurasoak etortzen dira eta gutxi batzuetan aita bakarrik.

Jaizki FONTANEDA / FOKU

ten ditugu saioak, aita pila bat etortzen dira eta pozik gaude. Batez ere hirugarren zikloan, aitari begira daude mutilak, erreferente dira».

Ikasleen informazioa jasotzeko aitaren ikuspuntua osagarria izaten da: «Amak gauza bat ikusten du eta aitek beste bat, bultzada ematen du gizarterantz. Aita ez dagoenean ere topatzen dute erreferentea: aitona, osaba... Aitonak asko inplikatzan dira. Zer pozik ikusten ditugun! Berria da, orain ari dira gozatzen bilobekin».

Gurasoentzat hitzaldiak ematen dituzte berdintasunaren inguruan. «Gizon moderno asko

dago, baina ez dira konturatzen guk ere behar dugula aisialdi pixka bat, lana eta umeez gain. Gaurko gurasook dena nahi dugu: lagunak mantendu, aisia, umeak, lana... Zainketa partekatzea da gakoa, umeak ez baitira gureak bakarrik».

Umeekin ere lan egiten dute, Haur Hezkuntzatik hasita Lanbide Heziketara. Adibidez, neskatok batek suhiltzaile izan nahi duela-eta, lagun batek «ezin duzu, neska zara» esaten badio, «nola ezetz?» sartzen dira. Handixeago direnean, tutoretzetan rolak puskatzen saiatzen dira. Etorkizun hurbilean beraiek izango dira guraso. Galtza puskatzean, «aitak josiko dizu», esaten diete.

Murumendin, Haur Hezkuntzako langile guztiak emakumezkoak dira; Lehen Hezkuntzan ere bai gehienak. «Zainketa guztietan emakumeak ari gara eta ez gara ailegatzen, beti presente daukagun gaia da kontziliazioarena. Orain gurasoak dauzkagu delikatu samar, laguntza beharrean», adierazi du ikasketaburuak.

Azpitarratu duenez, enpresetako ordutegiak malgutzea behar da. «Covid egoerak argi utzi du: gaixotzean zein gelditzen da umeekin? Nik 50 urte ditut. Lankide gazteak ikusten ditut ume txikiekin. Aita seietan sartu da lanera eta antolatu ezinik etortzen dira. Oraindik ere falta zaigu, gaurko aitek erreferente gehiegi ez zituzten. Baina ari dira. Indarra ematen badiegu, zainketan lekua uzten badiegu, gusturago sentitzen dira».

AMONAK

Ana Asla Asmube Beasaingo emakume taldeko kidea eta amona da. Bat dator Leundarekin malgutasunaren ideian. Duela 42 urte Beasaingo haur eskola sortzeko prozesuan parte

Arrate Leunda, Murumendiko ikasketaburua:
«Aitek gero eta gehiago inplikatzan ari dira.
Indarra ematen badiegu, zainketan lekua uzten
badiegu, gusturago sentitzen dira»

«Gaurko gurasook dena nahi dugu: lagunak
mantendu, aisialdia, umeak, lana egin...
Zainketa partekatzea da gakoa, umeak ez
baitira gureak bakarrik»

hartu zuen. «Argi dugu ez dela haur aparkaleku bat, hezkuntza proiektu bat baizik. Baina ez du eskola egutegi eta ordutegia izan behar, ez dielako etxetik kanpo lan egiten duten gurasoen beharrei erantzuten. Asko zerbitzuetan ari dira; zeinek zaintzen ditu haurrak bitartean? Besteak txandaka ari dira kooperatibetan, goiz, arratsalde eta gauetz. Nor etorriko zaizu etxera txikiak zaintzera txandaka? Premia ugari dago eta lan arloan malgutasuna behar da».

Erantsi duenez, telelanak lagundu du hein batean, baina ez da konponbidea izan, enpresara konektatuta egon behar duelako langileak ordu batzuetan eta ezin duelako eskapo egin eta gerorako utzi inguruan dabilzan haurrei arreta eskaintzeko.

«Elkartekide askok gatzetatik sufritu izan dugu kontziliazio

Ana Asla, Asmube: «Gure seme-alabentzat apenas hobetu da egoera. Administrazio eta enpresek ez dute baliabiderik ematen. Hortaz, aitona-amonak ordezkaezinak gara»

«Neska-mutikoek bananduta ikasten genuenean diskriminazioez kontziente ginen. Gure alabek, ordea, lan aukera berak izango dituztela pentsatzen dute. Oker daude»

erantzunkidearen falta. Baina tristeena da, poliki-poliki neurriak hartzen ari diren arren, gure seme-alabentzat apenas hobetu dela egoera. Izurritearekin agerian gelditu da. Administrazio eta enpresek ez dute baliabiderik ematen lana eta familia uztartzeko. Hortaz, aitona-amonak ordezkaezinak gara».

Elkartean hainbat tailer eta talde dituzte martxan eta ez dute bat ere itxi behar izan konfi-

namenduagatik. «Baina harra-patuta gaude, batzuetan itota, nahiz eta gehienak jubilatuta egon. Zuloak tapatzen gabiltza eta ez dugu erraza batzea».

1953an jaio zen Asla. «Gure belaunaldian neska eta mutikoek bananduta ikasten genuen eta zeuden desberdintasun eta diskriminazioez kontziente ginen. Gure alabek, ordea, eskola mistoetan ikasi dutenez, unibertsitatera ere neska-mutilak iris-

ten direnez, ikasketak bukatzen dituztenean lan aukera berak izango dituztela pentsatzen dute. Eta nik uste oker daudela. Emakume eta gizonek ez dituzte lan aukera berdinak».

Arazoa hain denez konplexua, Udaletik harago joan behar dela uste du Asmubeko kideak, instituzio handiagoetara. «Hainbat frontetatik saiatu behar dugu arazoa konpontzen».

Herrilaben proiektua Beasainera etorri zenean itxaropen leihobat bat zabaldu zitzaizela kontatu du. «Eremu ezberdinetako eragileekin biltzeko eta mintzatzeko aukera bat da, eta erabakiak hartzekoa. Urrats txiki bat da, baina baikorra, batez ere gure inguruan eragin dezakegula. Eremu eta denbora jakin batean gauzatzen delako. Hasiera bat da eta ikusiko dugu nola jarraitu», adierazi du.

2018ko Martxoaren 8ko greban, amantalak zintzilik, emakumeek planto egiten zutela adierazteko. Aritz LOIOLA / FOKU

HAURREN OPORRETARAKO PROIEKTU BAT LANTZEN ARI DIRA ENPRESAK ETA FAMILIAK

Herrilabek hasieratik partekatu du bidea Beasaingo enpresa sektorearekin. Goieki Goierriko garapen agentzia talde eragilearen parte da eta kontziliazio erantzunkidearen aldeko estrategiak garatzen ari da sentsibilizazio ekintza, ikerketa eta hausnarketa tailerren bidez. Guraso elkarrekin, haurren oporraldirako proiektu experimental bat lantzen ari da, sasoi hori izaten baita gatazkatsuen bizitza eta lana uztartzeko. «Enpresetan eta udalerrian dauden baliabide, zerbitzu eta neurriak kontrastatu eta, emaitzetan oinarrituta, familien kontziliazio erantzunkidea lagunduko luketen hobekuntzak proposatzea da helburua», azaldu du Goiekik.

2021ean, azterketa bat egin zuen Herrilabek, Beasaingo enpresetan covidak izan zuen eragina, berdintasunerako politikak eta bateragarritasun erantzunkidea ezagutzeko. Parte hartu zuten enpresek batez beste 11 langile zituzten eta horietatik %39,5 ziren emakumeak. Ikusi zuten, telelana izan zen ezarritako berrikuntza nagusia. Kontziliaziorako maiz hartutako neurriak zigorrik gabe familiako larrialdietan lanpostua uzteko aukera, oporrak aukeratzeko malgutasuna eta sartu eta ateratzeko ordutegi malguak izan ziren.



FEMINISMOA, ZUTIK

Herri eta auzoetako hormetan idatzi zen mugimendua, erakusketa formatuan

📁 JENDARTEA / Nerea Goti

EHUko Gizarte eta Komunikazio Zientzien Fakultatean, “Amnistia emakumeentzat. Abortatzeko eskubidea” dioen pankarta bat dago. Ondoan dituenak bezalaxe, jatorrizkoaren erreproduzioa da. 1970 eta 80ko hamarkadetan kalean ikusi ahal ziren mezuak eta idazkerak errepikatu dituzte, orduko giroa irudikatzen. Euskal feminismoaren ereserkiaren letraren errepika gogora ekarriz, “Zutik, zutik, zutik” du izenburua hainbat material grafiko bildu duen erakusketa. Pankartak dira elementu horietako batzuk. 1968 eta 1994 urte bitarteko espazio kronologikoan, EAEn bizi izan zen «bigarren olatuko feminismoaren» oroimenari eskainitako begirada historikoa da, Bizkaiko jazoeretan zentratuta.

Diktaduraren kateak hautsi eta mugimendua eraikitzen kaleak hartu zituen borroka baten erakusle diren pankartak, prentsa artikulua, batzarretako aktak, pegatinak, kartelak, pintadak edo argazkiak ikus daitezke, garai hartan, neurri handi batean, herri eta auzoetako hormetan idatzitako mugimenduaren historia osatuz. Ondoan, urte ezberdinetan plazaratutako liburuxka, paskin eta eskuorrien bilduma aberats bat dago ikasleen joan-etorrien bidegurutze den espazio horretan.

Kolore moreko kartulinetan garaiko emakumeen testigantzak ikus daitezke. Horien artean, esaterako, 1977an lanean hasi zen emakume batek senarrarekiko «askeago» sentitu zela kontatzen du. «Nahiz eta garbitzera joan nintzen (...) bulego batean nengoela irudi-

60ko hamarkadaren bukaeratik aurrera eztanda egin zuen feminismora bidaiatzea proposatzen du «Zutik, zutik, zutik» erakusketa. Begirada historiko bat, garaiko materialen bidez, une grisenetan sistema oso bati aurre egin eta oztopo guztien gainetik hormetan emakumeen ahotsak idazten hasi zen unera hurbiltzeko.

tzen zitzaidan», dio.

«Ematen zidatena asko ala gutxi izan, bizitza hobetu nuen, gazteriak orain bere burua ikusten duen bezala ikusten nuen nire burua, senarraren aurrean pertsonaliteta daukazuelako, eta ahizpek eta koinatek nabaritzen zidaten», eransten du. «Lotsagarria» iruditzen zitzaion etxetik kanpoko lanagatik dirua irabaztea etxekoandre gisa egindako la-

na baino baloratuagoa egotea. Lekukotasun bat da, garaiko testuingurua ulertzeko.

Koka gaitezen diktaduraren urte beltz haietan: emakumeak abortatzeagatik, antisorgailuak erosteagatik edo etxetik alde egiteagatik zigortzen zituen legedia indarrean zegoen, amaren eta etxekoandrea- ren roletara mugatzen zituen gizarte sistema itogarri hartan. Dena irabazteko zegoen

70eko hamarkadan kaleetan ikus zitezkeen hainbat pankartaren erreproduzioak daude «Zutik, zutik, zutik» erakusketan. Aritz LOIOLA | FOKU

une hartan, ateak zabaltzeko eta gizarteari mundua deskubritzeko betaurrekoak jarri zituzten mugimendu feministak. Izaera politikoko mugimendu bat eraiki zuten emakume haiek, gainera, agenda politikoan espazio berriak irabazi eta euren gorputzak, bizitzak, beharrak eta nahiak erdigunean jarri zituzten.

Garaia aztertu duten adituek borroka izan zuen izaera «emozionala» aipatzen dute. «Puntu eta aparte» bat jarri zuen une bezala deskribatu dute, baina argi dagoena da feminismoa «adierazpen politiko argiengan, publikoki eta estalkirik gabe» agertu zen unea izan zela.

Hogeita bost urte horietan gertatutakoari «bigarren olatuko feminismoa» deitu diote. Euskal testuinguruan, lehena 20-30eko hamarkaden inguruan izan zen eta frankismoarekin bukatu zen. Bigarren olatua deituriko honetan, diktadurak eratutako legedia eraitea izan zen lehen mugarririk bat, baina ez bakarrik. Hori azaldu dio GAUR8ri Maialen Aranguren. 25 urte horietan jazotakoaren azterketa da burutzen ari den doktore tesiaren ardatz nagusia. Azpimarratu duenez, «haustura handi bat» suposatzen maila askotan. 80ko hamarkadatik 90eko hamarkada doan olatu horretan etapa ezberdinak izan ziren, garapen prozesu baten barruan. Bizkaiko kasuari erreparatuta, 1976an Bizkaiko Emakumeen Asanbladaren sorrerarekin jaio zen mugimendu feminista antolatua- ren lehen helburua emakumei eragiten zien legedi frankista eraitea izan zen 80ko hamarkadako erdialdera arte. Mercedes Arbaizak eran-



tsi duenez, «mundua hankaz gora» jarri zuten. “Emakume, ez zaitez isildu” leloa egia bilakatuta, «emakume izateak esan nahi zuena esperimentatzeko modu berriak» proposatu zituzten.

Bizkaiko Foru Aldundiko Enplegua, Gizarte Inklusioa eta Berdintasuna Sailak babesten duen erakusketaren komisarioa da Arbaiza. Genero eta historiaren azterketan ibilbide luzea duen Experiencia Moderna ikerketa taldeko partaide da. Talde horretan maskulinitatearen inguruko ikerketa lerro bat dago; beste bat «emozionala politikoa da» hipotesian zentratuta dago. «Oinarrizko ideia da nola legitimatzen diren politikoki sufrimendu eta ondoeza ezberdinak, lehen pertsonan agertzen diren heinean keinu politiko bat osatzen baitute».

Arbaizarekin eta Arangurenekin hitz egin du GAUR8k ikusgai dagoen material guztiaren atzean izan ziren bizi-penetara hurbiltzeko. Garai hartan, «intuizio eta ausardia handiz, bizia aldatu zigun gizarte mugimendua» eraiki zela aipatu, eta emozio, ezinegon, esnatze, eztanda politikoko eta antolaketako garai gisa deskribatu dute unea, emakumeen eta gizonen arteko eta emakumeen euren arteko harremanak ere era erradikalean aldatu zituen garai gisa, hain zuzen.

M8A ETA LEIOAKO TOPAKETAK

Erakusketara itzuliz. 1976ko otsaila da. Data behealdean idatzita dauka orrialde mekano-grafiatu batek. Bertan, emakume talde batek antolakunde bat sortzearen erabakia plazaratzen du. «Etxekoandreen, emazteen eta amen paperera» baztertuta, horrek eragiten

Pankartek, pegatinek, kartelek... iraganerako bidaia gidatzen dute, abortuaz, dibortzioaz edo emakumeentzat amnistiaz hitz egiten duten mezuetan batetik bestera salto eginez

1968tik 1994ra bitarteko 25 urteetan mugimendu feministaren une historiko batzuk garaiko dokumentuetan irakur daitezke, haien hitzetan eta protagonisten irudietan



Maialen Aranguren eta Mercedes Arbaiza, erakusketan. Aritz LOIOLA | FOKU

duen «mendekotasun ekonomiko, politiko eta soziala» eta sortzen duen gizonetikiko «mendekotasun psikologiko eta afektiboa» salatzen dute. Testuan, lan egiteko eskubidea eskatzen da, sexu edo egoera zibilaren araberrako baldintzarik gabe. Haurtzaindegia edo familia plangintzako zentroak sortzearen beharra ere plazaratzen dute, baita sexu hezkuntza eta doako antisorgailuak eskatu ere.

Akta Bilboko Gizakundearen elizan izan zen batzar historikoa da. Erakusketa muntatu baino aste bate lehenago agertu zela dokumentu hori azaldu digu Arbaizak, lehenago ez zen ezagutzen.

Bizkaiko Emakumeen Asanbladaren sorrera eragin zuen bilera izan zen. Lanbroa elkarrekin eta beste emakume batzuekin deitu zuten batzar hura. Garaiko kronikek batzar hartan ehun lagun inguru bildu zirela diote. «Lehen topaketa horretan, beste errealitate eta adierazpen batzuetatik feminismora hurbiltzen ari diren emakumeak daude, auzoetako herritarren mugimenduetan

lanean ari diren emakumeak, oraindik legeztatu gabe dauden erakunde politikoetakoak... Hortik sortu zen jatorrizko nukleoa, 1977ko abenduan Leioako jardunaldiak antolatu zituen traxzio gunea», azaldu du Arbaizak.

Lehen topaketa horretan sortuko zen Bizkaiko Asanblada, eta Arabakoa handik hila-bete batzuetara, Martxoaren 3ko gertakarietan parte hartu zuten emakumeekin, langile-en emazteekin eta beste emakume batzuekin. Antzeko asanbladak sortu ziren beste hiriburuetan eta zenbait herritan ere, Arangurenek zehaztu duenez.

«AMNISTIA EMAKUMEENTZAT!»

Urte horren bukaeran mugarriz izan zen beste jazoera bat dago: EHUko Leioako campusean izan ziren lehen topaketa feministak. Garaiko artikulua baita, izan zuten parte-hartze handia azpimarratzen da, baita Areto Nagusiak erakutsitako irudi «ikusgarria» ere. Egunero 1.500 emakume inguru bildu zirela dio albisteak.

Lehen Martxoaren 8a ospa-

URREA BEZALA ETXEAN GORDETAKO DOKUMENTUAK

Erakusketa martxoaren 31ra arte egongo da EHU. Gero Santurtzira joango da, eta liburu bihurtzeko bidean dago. Leioako honetan ez daude Mamikiren elastikoak baina egongo dira, seguruenik, hurrengo edizioetan. Materialen zati handi bat Maite Albiz Emakumeen Dokumentazio Zentroetik dator, baina gehiena emakumeek eurek emandakoa da: liburuak, aldizkariak, pegatinak... Izan ere, eskuz egindako aktak ikus daitezke, sinadurarik gabeak, hori ere mugimenduaren ezaugarrietako bat izan baita. Mercedes Arbaizaren esanetan, arlo askotako emakumeen sinergiaren emaitza da erakusketa, esperientzia pertsonal eta oroimen kolektibo bat gorde izan duten horiena barne.

«Gu ez goaz emakumeen aurka, emakume horiek sistemaren tresna bihurtzea erabaki badute ere», azaltzen zuten gertaera sonatu haren inguruko akusazioei erantzunez. Feministen protestak Alde Zaharreko Gaztetxeko gazteen eta Langabeen Koordinadorako ki-deen babesa izan zuen.

«BIZI NAHI DUT LIBRE»

“De píldoras no me empacho para entretener a un macho”, “Bizi nahi dut libre, zure legeen kontra, zure usteen kontra”, “Manolo, hazte la cena solo. (Mi primer grito de guerra)”, errotuladore beltzez idatzitako pintaden mosaikoko batzuk dira, bionboetan antolatutako materialaren artean.

Erakusketak duen formatua garaiko borrokaren isla ere bada, Arbaizak azaldu duenez. Eduardo Hurtadok diseinatu-ta, bionboen bidez estatikoa ez den mugimendua irudikatu nahi izan da, «premia eta beharra» ardatz dituen atmosfera bat sortzeko. Zaurgarria eta intimoa den hori adierazten duen elementu bat da, «norbera biluzten eta adierazten den unean, eragilea pertsona gisa eratzen da».

Liburuxken, paskinen eta pegatinen bilduma zabal batek osatzen du erakusketa. Erakusten duten «hizkuntza desafiatzaile eta sakonki urratzailea» nabarmentzen dute begirada historikoan sakondu duten adituek, eta bistakoa da begiradak errotik aldatu nahi izan zituztenek ahalegin sortzaile berezia egin zutela mezua zabaltzeko.

Erakusketak proposatzen duen ibilbide historiko horretan aurrera eginez, 8oko hamarkadatik aurrera antolakuntzaren ikuspegitik bizi izan zen aldaketak agertzen di-

ra lehen planoan, antolakunde berrien sorrerarekin. Asanbladak zeukan izaera unitarioa apurtu eta feminista izateko eta sentitzeko modu ezberdinek kolektibo berrien sorrera ekarri zutela gogoratu du Arbaizak, begirada eta praktika ezberdinen «mapa kaleidoskopiko» moduko bat osatuz.

Testuinguru horretan kokatzen da Aizan kolektiboaren sorrera (1982), KASen inguruan sortua eta «zapalkuntza hirukoitza planteatzen zuena: nazionala, klasekoa eta patriarkala», eta urte batzuk geroago Egizan kolektiboaren jaiotzarekin bukatu zen sentibiltatea; Clara Campoamor Elkartearen jaiotza (1985), emakumeen aurkako indarkerian zentratuta, edo Maria de Maeztu Forumak.

Ondorengo urteetan, berdintasunaren aldeko mezuetan zentratutako aldarrikapenak agertzen dira, Emakunderen sorrerara heldu arte. Azken honekin lotuta, Gasteizko Legebiltzarreko zenbait parlamentarik egindako presioaren kontakizuna ere ikus daiteke.

Mugimenduaren ibilbidearen erakusle diren material ezberdinetan protagonismo handia dute lesbianismoarekin lotutako mezuek eta hori ere ez da kasuala. Hain zuzen ere, Arbaizak azaldu du Bizkaiko mugimendu feministak hasieratik oso lotura argiak izan zituela lesbianismoaren adierazpenekin. Jardunaldien deialdian bertan, «oso ahots argiak daude afektibitate eta sexu adierazpen askatzaileagoak bizitzeko ideia luzatzen dutenak». Erakusketako komisarioak gaineratu duenez, «Bizkaiko Emakumeen Asanbladaren egiazko elementua da». Horrek material ugari-

Kartel eta pegatinetan lehen begirada batean erraz ikusten da auzo mugimenduak izan zuen garrantzia; auzoak hobetzeko borrokan ari ziren emakumeek jokatu zuten paper aktiboa

Lagunen arteko zirkuluak, talde informalak... emakumeek hitz egiteari beldurra galtzeko espazioak izan ziren, tabuak, estereotipoak eta arauak gainetik astintzeko hasiera puntu bat

sorrera ez ezik, hainbat fororen sorrera ere ekarriko zuen.

Deigarria da, bestalde, mezu-zen mosaiko horretan auzo mugimenduak izan zuten garrantzia. Arangurenak aipatu du zentzuzkoa dela auzoetako bizitza hobetzeko borrokaren lehen lerroan ibilitako emakume horiek paper aktiboago bat izatea. Arbaizak gogora ekarri du alderdi politiko batzuk oraindik legeztatuta ez zeudenean herritarren mugimenduaren barruan bazeudelako jada praktika feministak ziztuzten emakumeak. Emakumeen zentroak aldarrikatzen zituzten, emakumeek eurek elkartzeko zentroak izango zirenak, eta gerora osasun zentroak eta planifikazio zentroak izango zirenak, egun dugun osasun sistemaren antolakuntzaren hainbat urrats eginez; batzuek ulertuko ez zituzten baina honaino ekarri gaituzten urratsak.

Erakusketarako emakumeek utzitako material ezberdinak ikus daitezke, garaiko kartelak, argazkiak, artikulatuak... Irudian, Martxoaren 8ko kartelak eta une ezberdinetako mobilizazioen irudiak. Aritz LOIOLA | FOKU





Ana Elozegi Serna

Harremanak Hezkuntza Elkarteko kidea

«Hementxe dala hementxe dala...»

Aurten gozatu ditugu pixka bat inauteriak. Gogoan dut duela bi urte inauteri ondoren hasi zela amesgaiztoa. Gogoratzen naiz astelehen karnabalean kaletik mozo-rroturik gindoazela nola ikusi genuen tipo bat koronabirusez jantzi-ta. Denok barre egin genion, hau burutazioa! Jakin izan bagenu orduan zer etorriko zitzaigun...

Bi urte geroago, kontentu ibili gara etxekoak azken orduan txikiteo eleganteko trajeak prestatzen, mozorroak garaiz ezin amaituta ilusioz beteta! Gazteak eta helduak, haur eta nerabe, denak ilusio handiarekin, musika entzun, dantza egin eta mozorroak baimentzen digun askatasun hori baliatu dugu egun batzuek lotsagabe eta ausartago bihurtzeko.

Eta inauterien ondoren, martxoa, udaberri hasiera, zuhaitzak loratzen, eguzkiaren goxoa eta euriaren hotsa. Martxoan, aipatu nahiko nituzkeen bi data. Bata, martxoaren 26an, lagun arteko bazkaria.

Badira hilabete batzuk gure lagun Artola hil zela, eta haren omenez egingo dugu bazkaria. Artola denon laguna izan zen, lagunartea berarentzat garrantzitsua zen oso, berdin ibili zitekeen gazteekin edo helduekin. Xabier Artola lagunaren lagun, politikoki eta sozialki herrian lan handia egin-dakoa, autonomo-antikapitalista mugimenduan ibilia, gaztetzeko laguna, gaztaroko bidelaguna... Pasaiako Badian 1984ko martxoaren 22an Espainiako segurtasun indarrek erail zituzten lau gazteen aldeko omenaldiak antolatzen igaro zuen bere bizitza, injustiziak salatzen beti.

Berarekin ezagutu genituen afari-meriendak, karajilloak, baita Euskal Herriko pertsona eta leku mordoa



Bi urte ondoren, kontentu ibili gara inauterietan, umorez gozatzen.

Andoni CANELLADA | FOKU

ere. Beti lanerako prest zegoen, hango manifestazio eta hemengo asanbladak prestatzen. Bere irribarrearekin gogoratzen naiz, Erdi Kanean edo plazan oraindik berarekin topatuko naizela ematen du, bere «ze moruz, Anita» alai hori entzuteko prest... Gure Artola maittea!

Baina, egun batzuk lehenago, martxoaren 19an, San Jose egunean, Donostian erronka berri bati heltzera goaz: Harremanak Osasun Zentro berriaren irekiera. Haurdunaldi luze baten ondoren, *hementxe dala hementxe dala*, gure osasun zentro berria. Gogoz gaude, lantaldea osatua, eta orain aurretikoak prestatzen ilusioz beterik: webguneko berrikuntzak, lokaleko obrak, al-

tzariak... Zenbat denbora egitasmoa sortu, lokalak bilatu, diseinua pres-tatu eta den-dena behar den mo-duan abiarazteko.

Gure erronka da klinika arloan zer-bitzu integrala euskaraz eskaintzea Donostian. Gros auzoan, besteak beste, helduen terapiak, haur tera-piak, talde terapiak, psikomotrizitate saioak, hitzaldiak eta ikastaroak izango dira.

Egun bizitzen ari garen garai kon-plexuetan eskaintza zabal batekin goaz Donostiara. Udaberria, bai, lo-raldi garaia, norbere barrutik atera eta kanpora begira jartzeko garaia.

Neguan kozinatutako egitasmoei leihoak ireki eta gauzatzen hasteko garaia da, egindako lanaren lore dis-tiratsuak ikusteko garaia. •

{ koaderno } Iker Barandiaran

Nahi adina

Kuadrillako lagun baten aitaren hiletatik etorri berri, zoritxarrez gero eta ohikoago bihurtzen dabilen tonikan. Segidan, duela urte batzuk fisikoki elkartzeko asmoarekin sortutako whatsapp taldean mezu bat, umore beltzean baina egiazkoa erabat: gu ere beste hauek bezalaxe hil aurretik, goazen behingoz bazkari baten bueltan elkartzera. Izan ere, gurea ez da inola ere euskal labela daukan kuadrilla horietako bat: bakoitzak bere bizimodua dauka –askotarikoa–, bere afizio, bere leku, kezka eta pasioak erabat desberdinak dira; ez gara ia inoiz elkartzeko, baina badago zerbait –azaldu ezina– nerabezaroan batu gintuena eta hor nonbait modu erabat naturalean piztuta jarraitzen duena.

Bada, ditzosozko pandemia hau baino lehenago hasi ginen tarteka mahaiaren bueltan elkartzeko eta horri esker elkarren berri izaten eta gozatzen. Baina garai luze honetan heriotzak bakarrik batu gaitu. Horregatik, mezu beltza, eta dagoeneko badugu data bat erabakita!

Gurasoak hiltzen hastearen hori eta bizitzako ‘*batalita*’ edo pasarteak oroitzeko pasatu diren urteak sinesgaitz zenbatu eta harritzearena bizitza legea da. Ospatzekoa da bizi izan dugun guztia eta, jakina, oraindik asko bizitzeko moduan gaudela. Baina pasatu dira urte dezente, bete eta bizi izan ditugu; ondorioz, hotzean onartzea kostatzen bada ere, jada ez gara gazteak. Ja, ja, ja.

Pandemia aurretik makina bat alditan eztabaidatu genuen lagun batek eta biok dagoeneko ez garela gazteak, agian *cuarentón* baino *cuarentañeroak* gara –xuabeagoa ote–, eta badela ordua –noiz, bestela?– gazte ez garela aitortzeko. Dezente eztabaidatu ostean, ondorioztatu genuen gazte ez, baina gu bion kasuan pertsona aktiboak bagarela. Eta hori ez da gutxi, e!

Horren harira, gogoan daukat orain dela urte batzuk –izango dira aurreikusitako gehiago seguruenik– Gaztetxean guk geuk antolatutako kontzertu ba-

ten ostean gaua ezohiko eran luzatuta, orduko Gaztetxeko asanbladako kide batzuek –haiek bai gazteak– ziria jo nahian galdetu zidatela ea nik zer egiten nuen han. Bada, nik bat-batean erantzun nien ea haietako zeintzuk egongo ziren han gauzak antolatzen nire adinean. Isilik gelditu ziren, eta beste gogoeta bat zabaldu nuen, antza. Badira, esaterako, jende nagusiagoa ere modu aktiboan aritzen den guneari «gaztetxea» ordez beste modu batean deitzeko saiakerak egin dituzten herriak. Niretzat eztabaida horrek ez dauka garrantzirik.

Izan ere, oso-oso ohikoa da tamalez, adina (ez bakarrik) dela medio jendea *apoltronatzea* edo bestelako ardurek zailduta, nagikeria nagusitu eta, guztiaren ondorioz, kale presentzia eta aktibitatea desagertzea. Hori da, bada, saihestu behar dena. Eta aktibo jarraituz gero, oso presente izan behar da espazio bakoitzean nork izan behar duen protagonismoa; hori ere zaindu behar da bai gaztetxeetan, bai eragile desber-

Ohikoa da, tamalez, adinagatik (ez bakarrik) jendea «apoltronatzea» edo bestelako ardurek zailduta, nagikeria nagusitu eta, guztiaren ondorioz, kaleko presentzia eta aktibitatea desagertzea

dinetan, bai testuinguru jakinetan... adinari zein generoari erreparatuta, besteak beste.

Bitxikeria gisa, orain gutxi bazkaria eta parranda egin genuen punka oinarri Arrasateren historia zati bat azalera ekarri genuen lagunok. Esperientzia ederra izan da oroimen historikoko lan hori eta prozesua bera, eta jardunean genbiltzala behin eta berriro azpimarratu genuen belaunaldi desberdinak –hor ere modu naturalean– batu izanaren aberastasuna, beste esparru askotan ikusten ez dena. Ba, hor ere mahaiaren bueltan –edo agian gerora tabernazuloren batean– konturatu ginen batutako gazteenaren eta nagusienaren artean 28 urteko aldea zegoela!! •

Txirrindulari tropeleko emakume prestatzaile bakarra da. Barañaindarra, 41 urtekoa, eta bitzita ia osoa bizikletari lotuta eman duena. 11 urterekin jarri zen bizikleta gainean lehen aldiz; profesional izan zen Joane Somarribaren bizkartzain, eta Richard Carapaz-en prestatzaile, Ekuador-koak Giroa irabazi zuenean 2019an. Juanjo Oroz da bere

bikotea, Kern-Pharma taldeko kirol zuzendaria, eta talde horretako ziklisten prestatzaile darama egun. Erroibarko Orondritz herri ederrean bizi da Iosune, bikotea, Oihan eta Amets semeak, eta «Rocky» eta «Bizkor» zakurrak lagun.

Nola aurkeztu behar zaitugu? Entrenatzailea? Txirrindulari ohia? Bi horiek ziur. Txirrindulari ohi baten emaztea ere banaiz

(Juanjo Oroz), eta akaso etorkizunean txirrindulari izango diren semeen ama ere bai.

Gustatuko litzaizuke Oihan eta Amets txirrindulariak izatea? Ohian oraintxe hasi da bizikletan, 10 urte ditu. Lehen aldiz jarri zuen txirrindulari trajea, eta kontent zen, ikusiko dugu. Arra sartu zaio, udan ere 25-30 kilometro egin izan ditu, ni atzean uzten saiatu zen.

«Pribilegiatua sentitzen naiz Giroak, Tourrak eta Munduko

Txapelketak korritzeko aukera izan nuelako. Joane Somarribaren izena nabarmendu behar dut; taldea bere inguruan eraiki zen eta helburu gorenak lortzeko moduko taldea zen»

Nor da Iosune Murillo? Barañainen jaio nintzen (Nafarroa), 41 urte ditut. Oso neska mugitua izan nintzen txikitari, aitonarekin behietara, ardietara, baratzean... Kirolarekin zerikusia zeukan zer bait ikasi nahi nuela garbi nuen, eta Soin Hezkuntza ikasi nuen Gasteizen. Egun, txirrindularien prestatzaile aritzen naiz.

28 urte zenituela hasi zenuen zure bizitzako aro ho-



«Lan zaila da gurea; jendearen ilusioa dugu esku artean»

ri, baina aurrez txirrindulari profesionala izan zinen.

Bai, 11 urterekin hasi nintzen bizikletan eta 17 urtez jarraitu nuen. Goi mailako txirrindularitza ezagutu ahal izan nuen, Joane Somarribaren taldekide Bizkaia taldean.

Italiako bost Giro, Frantziako hiru Tour eta Munduko hiru txapelketa korritu zenituen. Zenbaki ikusgarriak.

Pribilegiatua sentitzen naiz proba horiek guztiak korritzeko aukera izan nuelako. Joane Somarribaren izena nabarmendu behar dut, taldea bere inguruan eraiki zelako, eta helburu gorenak lortzeko moduko taldea zelako. Eneritz Iturriaga ere garai hartako txirrindularia da, goi mailakoa eta Olinpiar Jokoetan arituta-koa.

Jendeak, Euskal Herriko txirrindularitza zaleak ba ote daki Iosune Murillok zortzi itzuli handi korritu zituela?

Ez dakit badakien, baina ez dit gehiegi axola. Esperientzia horiek guztiak norberak gordezkeko dira, ondoren nire seme-ei kontatzeko. Garai haietako esperientziek, bizitako momentuek gehiago betetzen naute, egin nuena ezaguna den edo ez izatea baino.

Txirrindulariaren bizitza gogorra da, sakrifizio asko egin behar izaten dituzte. Nolako izan zen zure garaia?

Nik oroitzapen polita dut. Nire aurreko belaunaldiko emakumeek lanbide batekin partekatu behar izan zuten ziklista jarduna, nik ez. Ikasketak bukatu, eta txirrindulari profesional bilakatu nintzen, bost bat urtez. Bizitzeko adina ematen zuen soldata jasotzen nuen, konforme nintzen.

Emakumezkoen historiako garai distiratsuen izan zen hura euskal txirrindularitzarentzat. Nolako da egoera orain?

Mundu mailan egoera hobetzen ari da, ikusgaitasun handiagoa dugu, babes handiagoa. World Tour mailako talde askok emakumeen taldea dute, dirua sartu da. Gure garaian hiru proba bakarrik egiten genituen mutilekin batera: Fleche-Wallone, Flandriako Tourra eta Munduko Txapelketa. Egun Paris-Roubaix ere egiten da, zazpi eguneko Tourra ere bai...

Joane Somarriba mito bat izan da, kirol mailan Miguel Indurain handiaren-gandik gertu, baina bere oihartzun mediatikoa askoz apalagoa izan da.

Aldea handia da, zergatik ukatu. Emakumeen txirrindularitza ez da gizonena adina ikusten telebistan. Txirrindulari apartak daude emakumezkoetan: Annemiek Van Vleuten, erretiratu berri den Van der Breggen, Marianne Vos... Horiek Pogacar, Roglic, Van Aert edo Van Der Poelen maila dute, prestatzen duten guztia irabazi edo lehiatzen dutelako. Ez dut erabateko berdintasunik eskatzen bat-batean, baina poliki-poliki pausoak ematea bai. Eta ari gara.

Futbolarekin alderatzen dut. Emakumezkoena hazten ari da, euren eskubideak eta lan baldintza onak aldarrikatzen ari dira, baina ezin du bi eguneko kontua izan, epe luzeagokoa baizik.

Nola gogoratzen duzu Somarribaren arrakastak izan zuen oihartzun falta hura? Injustizia izan al zen?

Zer pentsatua ematen dit, batez ere Somarriba beraren-gandik, profesional zorrotza zelako. Lehen urteetan ez neukan helburu handirik, banekien zein zen nire maila. Bizikletan ibiltzea maite nuen, bidaiatzea, lasterketak korritzea. Ondoren serioago hasi nintzen prestatzen, Somarribari laguntzea gauza handia zelako. Joane Tourra irabazi zuen, baina bere diru saria huskeria izango zen mutilen garailearekin alderatuta. Juanjo Oroz senarrarekin bizitzen hasi nintzenean jabetu nintzen ondo genero arrakalarekin. Biok ginen profesionalak, baldintza berak, sakrifizio berak, eta soldata, ba oso ezberdina. Neuk ez nioke injustizia esango, ez nuen hori sentitu, mutilak baino gutxiago ginela bai. Hor mutilek ere badute bere erantzukizuna, nire ustez. 'Jardun bera daukagu, baina emakumeek askoz diru gutxiago jasotzen duzue', esan izan balute ozen, akaso egoera ezberdina litzateke gaur.

Jaso zenuten halako elkartasun mezurik, gizezkoen aldetik?

Denetarik zegoen. Diferentziak diferentzia, ondo moldatzen ginen elkarrekin, entrenatzen-eta.

Iritsiko al da, noizbait, berdintasun erreala?

Ez dakit. Futbolean hainbat gizek jasotzen duten dirutza erreala al da? Niretzat ez. Lehenentasuna emakume kirolariet euren kirol ibilbidea garatzeko aukera izatea litzateke, beste lanbide batean aritzeko beharrik eduki gabe. Kirolari profesionala izateak pasiotik du asko, lanetik baino gehiago, eta askok pasio hori lanbide

IOSUNE MURILLO

KERN-PHARMA TXIRRINDULARI TALDEKO PRESTATZAILEA

Txirrindulari profesional izandakoa, orain puntako txirrindularien prestatzaile fisikoa da. Bi aldeak ezagutzen ditu, kirolariarena eta prestatzailearena. Hori abantaila du.

Txirrindularitzaren munduan dagoen

emakume prestatzaile bakarra da.

Andoni Urbistondo

«Juanjo Oroz senarrarekin bizitzen hasi nintzenean jabetu nintzen ondo genero arrakalarekin. Biok ginen profesionalak, baldintza berak, sakrifizio berak, eta soldata, ba oso ezberdina»



bilakatzeko aukerarik ez dute izan.

28 urte bete, txirrindularitza profesional jarduna utzi eta prestatzaile-entrenatzaile bilakatu zinen, ikasketak bukatuta Gasteizen. Egun, txirrindularitza munduan dagoen emakumezko prestatzaile bakarra zara. Horrela esanda, deigarria egiten da.

Nik dakidala, ez dago beste emakume prestatzailerik txirrindularitzan. Beste kirole-tan bai: futboleak, atletismoan... Zer sentitzen dudan? Ezer berezirik ez, nire bizitzak eraman nauelako egun betetzen dudan jardunera. Medikuntza alorrean badaude emakumeak Kern-Pharmataldean, esaterako. Masajistak, fisioak, nutrizionistak ere badaude txirrindulari-

tzan. Bagoaz poliki-poliki toki-a hartzen, eta ez aspaldi, mutilek egiten zituzten zeregin horiek guztiak. Egun normalizatuagoa dago emakumeak ikustea txirrindularitza taldeetan, urte batzuk atzera oso arraroa zen.

Richard Carapaz ekuadortarren prestatzailea izan zinen, 2019ko Italiako Giroko garailearena. Sona handia eman zizun horrek.

Sona eta erantzukizun handia. Nire lana garatzen hasi nintzenean urduritasuna handia zen. Plangintza bat egiten nuen, kirolariarentzat ona izango zena, eta teorian, errendimendu ona emango zuena, baina beti ez nuen asmatzen. Gorputz guztiak ezberdinak dira, pertsonak bezala. Esperientzia hartzen zoazen heinean lasaia- go egiten duzu lana, metodo-

logian hobetu. Erantzukizun handiko lana da prestatzailearena.

Zergatik?

Ba jendearen ilusioarekin jotkatzen dugu, haien helburuak gauzatzen lortu, bideratu, laguntza eman... eta hainbat faktore kontrolaezinak dira. Etengabeko estres egoera batean bizi dira egun txirrindulariak. Lasterketa guztiak dira garrantzitsuak, eta prozesu horretan arrisku asko daude. Kirolariaren determinazioa, adibidez. Carapazen kasua aipatuko nuke. 2018an Italiako Giroan laugarren sailkatu zen, eta buruan sartu zitzaion lasterketa hori irabazi nahi zuela. Determinazio, argitasun horrek gure lana errazten du, baina kontrakoa ere gerta liteke. Kezkaz kezka bizi den kirolaria, adibidez.

Psikologo lanak ere egiten dituzula, alegia.

Noski. Askotan mintzatzen gara Juanjo senarra eta biok gaihonen inguruan. Biok profesional izan ginenean zer bota genuen faltan. Txirrindulari profesional batek ordu asko pasatzen ditu bakarrik, sozializazio handirik gabe. Jaiki, gosaldurik, lau zapabost orduko entrenamendua, bazkaldu, siesta egin... Ordu asko bere buruari begira. Momentu horietako pentsamenduak onak badira, arazorik ez, baina batzuetan ez dira onak. Kezkak sortzen dira: sentsazio txarrak entrenamenduetan, edo baskulan jarri eta kilo erdi lotiago, egutegia aldatu didate, zergatik ote... Zalantzak sortzen dira, galderak egiten hasten dira euren buruari, eta psikologo baten laguntza komenigarria izaten da. Batzuek

ez dute behar, hori ere garbi esan behar da.

Nola lantzen duzu zeuk buruko lan hori ziklistekin?

Profesionalak gara, eta exigentzia maila oso handia da Kern-Pharmataldean. Hirugarren urtea da hau tropelean, eta gure helburua ahalik eta lasterketa onenetan egotea da. Gonbidapenek ematen digute arnasa, Espainiako Vueltakoak adibidez, baina gonbidapen hori errepidean irabazi behar dugu. Taldeko prestatzaileok, laguntzaileek, bulegoko langileek %100 ematen dugu helburuak lortzeko, eta gauza bera eskatzen diegu txirrindulariei, entrenamendu guztietan. Eskatzen dieguna betetzen ez badute, zergatia bilatzen dut. Datozen helburuei aurre egiteko entrenamendu osoa egi-

tea funtsezkoa dela esaten diet.

Euren tokian jartzen ere saiatzen naiz, euren egoera ulertzen. 24 txirrindulari daude taldean, denek nahi dute lasterketa onenetan egon, baina ezin ditugu denak eraman. Erabaki zailak hartu behar ditugu, eta erabaki horiek batzuk poztuko dituzte, eta besteak haserretu. Guk gure helburua talde lana dela esaten diegu, ez garela taldekide baten aurka ariko, postutxo bat irabaztearen truke. Hori teoria ona da, baina tentsioak sor daitezke, batez ere Lizarte afizionatuen taldean. Jokoa talde profesionalean korritzea dago, kontratu bat gestionatu beharra oso gaztea izanda. Giroa kutsa dezake horrek, baina talde umila gara, eta komunikazioa zintzoa da txirrindulari guztiekin. Nire kasuan, askoz gehiago poztzen naiz 23 urtez azpiko txirrindulari bati profesionaletan aritzeko atea zabaltzen dizkiodanean, Carapazek Giroa irabazi zuenean baino.

Txirrindulari izan zinen, laguntzen zaitu ezagupen horrek orain egoera zail horiek kudeatzen?

Bai, zalantzarik ez. Hainbat egoera ezagunak baitituzu: erorketa bat, hezurren bat apurtu... Hori pasatzeko prozesu bat behar da: txirrindularia entzun, lasaitasun apur bat... Gero o gradurekin, edo 40ekin korritzea ez da berdina, edo World Tour lasterketa batean korritzeak suposatzen duen intentsitate maila. Txirrindularien erantzuna ez da matematika zehatza.

Taldeko txirrindulariek, mutilak denak, «entrena-



tzailea» deitzen omen dizute, natural.

Hala da, bai. Ez naute inoiz emakume bezala begiratu, prestatzaile bezala baizik.

Kern-Pharma taldean zaude orain, baina nola izan zen hasiera prestatzaile jardunean?

Naiara Telletxea txirrindulariaren prestakuntza antolatuz hasi nintzen. Nafarroako Federazioan 23 urtez azpiko mutilekin orientatzaile aritu nintzen teknifikazio zentro batean, eta ondoren Iruñean zabaldu zuten zentro mediko batean, lauzpabost urtez. Pixkanaka bezeroak lotzen joan nintzen nire kasa, baina Juanjo Orozek, egun senarra dudanak, bere prestakuntza egitea eskatu izanak eman zidan nire kabuz lanean hasteko azken bultzada.

Tentsio unerik bizi izan al zenuen senarrarekin prestakuntzaren harira?

Hasieran bai. Lehen bezero profesionaletan zen. Erraza ez zen izan niretzat, baina Iñigo Mujikaren laguntza jaso nuen, Gasteizen irakasle izan nuen eta garai hartan Euskaltel taldeko fisiologoa zen. Bizikleta utzi eta gero Juanjo Oroz Lizarteko kirol zuzendari hasi zen, eta haiantzako lanean hasi nintzen. Bertan zeuden Pedrero, Arcas, Samitier, Castrillo eta beste txirrindulari batzuk.

Kern-Pharma taldeko txirrindulariekin bakarrik aritzen zara egun?

Bai, ez daukat gehiagorako astirik. Lehen Movistar eta Kern-Pharma taldeko txirrindularien prestakuntza antolatzen nuen. Orain ja ez, ez

bainaiz iristen. Lan asko da, eta txirrindulari bakoitzak bere esparrua behar du. Leiala izan behar dut, 22 txirrindulariren prestakuntza eramaten dut. Askok ezagunak dira, badakit nola funtzionatzen duten, eta Juanjo kirol zuzendaria denez, asko laguntzen dit. Taldetik kanpo Ziortza Villaren prestakuntza bakarrik eramaten dut, iraupen luzeko probetako kirolaria.

Zer bitarteko erabiltzen duzu kirolariekin harremanak izateko?

Gaztetxoekin Whatsapp, baina bitarteko onena telefono deia da. Aurrez aurreko harremana edukitzea ere saiatzen naiz, orduan jabetzen baitzara ondoen nola dagoen kirolaria, beraien keinu bitartez.

«Txirrindulari profesional batek ordu asko pasatzen ditu bakarrik, sozializazio handirik gabe. Jaiki, gosalduta, lauzpabost orduko entrenamendua, bazkaldu, siesta egin... Ordu asko bere buruari begira»



Nola, non bilatzen dio ihesbidea Iosune Murillok, hain eguneroko beteari?

Ba 'Rocky' eta 'Bizkor' txakur-rekin osteratxo bat emanez, herri inguruko mendietan, edo Orondritzeko herritarrekin bermuta hartuz herriko elkartean igande eguerdietan.


Orondritzen bizi zarete, Erroibarren (Nafarroa).

Bai, pandemia garaian etorri ginen, aitak hemen etxea duelako. Ez nuen nahi bakarrik egotea, eta hemen gertatzea erabaki dugu. Patxada handia ematen digu, lasaitasuna, Artika herriko etxean ez duguna, eta gustura gaude. Bi semeak ere gustura egoten dira hemen. Oila batzuk ditugu, baratzea... Estresatu antzean bizi gara, egunerokoan, eta beharrezkoa da txoko honek ematen digun bakea.



Unai
GAZTELUMENDI

iRRITZIA:



Hausterreak

Antton Izagirre

Hasi eta buka, joan dira aurtengo inauteriak. Hausterre egunak amaiera eman die maskara, txantxo eta identitate eraldatuei.

Garai batean, liturgia kristauak ezarria zuen egun hura Aste Santua bitarteko Garizuma aroaren hasiera markatzeko. Elizak, inauteriak berekin zituen gehiegikeria eta arau hauste guztiei amaiera emanez, barau, ordena eta fede giroan sartzeko erritu modura ospatzen zuen. Eliz giroan, fededunen kopetetan errautsez marrazturiko gurutzeak aratusteko bidegabekeriak zuzentasunera ekarri izanaren sinbolismo osoa hartzen zuen.

Pandemiaren ondorengo lehen inauterian hauen biharamunean Hausterre egunak bestelako sinbolismoa izan duelakoan nago. Oso luze eta gogor jo du, derrigor maskara jantzita eraman beharrak, lagunarteko distantzia behartuak, besarkadarik eman ezinak, bakartuak izateak...

Aurtengoak mendekua hartzeko festak bihurtu dira. Ia-ia ezustean. Mendekua ordena estuari, agintekeriei, derrigortasunari. Inauteriek berez duten inprobisazioak goia jo du eta leherketa izan da. Parentesia luzeegia izan dugu. Esan liteke birus batek gure artera ekarri dituen debeku, min, tristezia eta zurruntasun guztiak inauterien eztandaz gainditu ditugula.

Jasandako errepresioa energia bilakatu, norberaren mugak ertzeraino eramanez, orekak hautsi, barne haserrea askatu, erru usteak baztertu.

Egindakoaz eta bizitakoaz damurik ez. Hala bizi izan dute askok. Inoiz izatekotan, aurtengoak askatzaileenak izan direla pentsa genezake.

Amaieran, Hausterre egunean, fedearen morrontzatik salbu, inork gutxik jo zuen elizara, errautsez egindako markaren eskean. Garizuma ilunegia da.

Hala ere, ezin ahaztu, indarkeria matxistek eta urruti gabe, egun eta ordu berean, gerraren suak utzi dituzten bestelako hausterreak. •

Kazetari kazetari (II)

Miren Azkarate
Badiola

Eta ez da soilik Kazetaritzako lizentzia dugunok ezin dugula eskolarik eman Bigarren Hezkuntzan eta Lanbide Heziketan. Ez da hor gelditzen gurekiko bazterkeria. Gure unibertsitate sisteman, lau urteko karrerak bi ziklotan banatuta egoten dira: lehenengo eta bigarren mailek lehen zikloa osatzen dute eta hirugarren eta laugarren mailek bigarren zikloa. Lehen bukatzen duzunean, askotan beste karrera batera salto egin dezakezu zuzenean bigarren zikloan sartuta. Bada, Kazetaritzarekin ezin da hori egin. Adibide praktikoa bat: Kazetaritzako lehen

zikloarekin ezin duzu irakasle ikasketen bigarren ziklora salto egin, baina alde-rantziz bai.

Bi unibertsitate karrera hauek jartzen ditut adibidetzat, nik 18 urte nituela, eta aukeraketa egin behar izan nuenean, bi hauek ikasketa “erraztatzat” jotzen zirelako. Ez zen notarik behar sartzeko eta “tontoen” karrerak ziren. Tira, ba ni bi aldiz “tonto” izan nintzen sentsazioarekin bizi naiz, gaur baita eguna irakasle ikasketak aukeratu zituztenek kazetariok baina baldintza hobeak dituztena dudarik gabe: oporrak, ekonomikoak, ordutegi aldetik zeresanik ez...

Nik bokazioz aukeratu nuen Kazetari-tza, eta horrela izaten jarraitzen du hogeitau urte geroago ere. Baina gaur egun iruditzen zait mugikor bat izatearekin soilik edozein dela kazetari, edo sare sozialak kudeatzen dakienak bidea egina duela. Guk besteen lanetan ezin dugu sartu, baina edonork sartu ahal du gurean. Laburbilduz, gauza gutxirako balio duela lizentzia honek eta agintariekin, gutxinaka-gutxinaka hiltzen utzi duten unibertsitate karrera bat dela. Desagertzeraino.

Oraindik zalantzan bazaude, ez izan tuntuna, egin ezazu euskal filo! •

PROGRAMA DEZAGUN MUNDUA MOREZ

Informatikaria arazo errealei begira ari da eta emakumea ere izan daiteke

📁 INFORMATIKA / Amagoia Mujika Telleria

2014an hasi zen E-makumeak taldea GAUR8n ekarpenak egiten. Dagoeneko ehunetik gora dira emakume informatikariek sinatutako artikulak. 2020-2021 urteetako bilduma prestatu dute, laugarrena, munduari mezu bat helarazteko: informatika munduko arazo errealei erantzun errealak emateko ari da lanean eta emakumeen kontua ere bada.

GAUR8 

2020 - 2021 bilduma
mila leiho zabalik
www.gaur8.info



PROGRAMA DEZAGUN MUNDUA MOREZ



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

INFORMATIKA
FAKULTATEA
FACULTAD
DE INFORMÁTICA


Donostiako Informatika Fakultateko E-makumeak taldea 2014az geroztik kolaboratzen du GAUR8n. Hilero-hilero Informatika Fakultateko irakasle eta ikertzaileek gai interesgarriak ekartzen dizkigute aste-karira, begirada zorrotzez, pedagogikoz eta gaurkotasunari pegatuta.

Elkarlana abiatu zenetik, dagoeneko ehunetik gora artikulatu osatu dituzte eta aldian-aldian bilduma berezietan paratzen ditugu, egindako lanak ikusgarritasuna hartzen baitu ekarpen guztiak elkarren ondoan ale bakarrean jarrita. Aurten josi dugu bildumetan laugarrena, 2020. eta 2021. urteetako ekarpenen sorta. Guztira 26 artikulak dira, guztiak emakume informatikariek sinatuak, eta askotariko gaiei punta ateratzen dietenak.

Egileek nabarmendu duteenez, 2020koek galdera hauen inguruan hausnartzeko balio dezakete: Nola lagun diezaioke teknologia garapen iraunkorrari? Internetek eta adimen artifizialak energia kontsumo handia dute? Zer diferentzia dago errealitate birtualaren, areagotuaren edo mistoaren artean? Sare elek-

triko adimendunek energia berriztagarrien garapenean lagun dezakete? Nahikoa da pasahitz sendo bat aukeratzeagure kontu digitalak seguru edukitzeko? Zer da genero arrakala digitala? Entzumen urritasuna dutenen zeinu hizkuntza interpretatzen lagun dezake teknologia? Superkonputagailuak behar dira adimen artifizialarekin lan egiteko? Nola lagundu dezake ikasketa automatikoak pandemiaren kudeaketan? Fida gaitzke sare sozialetan aurkitzen dugun informazioaz? Nola egiten dute lan software ingeniarietan ari diren informatikariek? Aplikazio informatikoek udalerrri seguruagoak eraikitzen lagun dezakete?

2021ekoek, aldiz, honakoen inguruan hausnartzeko: Zer egin dezaket euskarak tokia izan dezan adimen artifizialaren munduan? Interneteko informazioa egiazkoa edo "fake news" den jakin daiteke hizkuntza modu automatikoan prozesatuz? Errealitate birtuala erabil daiteke antsietatea, fobiak edo maite dugunaren heriotzak eragindako atsekabea tratatzeko? Zer egin hizkuntza txikiek ingurune digitalean iraun dezaten? Hizkuntzaren azterketarako Europak zer ikerketa azpiegitura digital eskaintzen du? Badago gure artean espa-



rru digitalean ekarpena egiten duen emakume gazterik? Emozioak automatikoki detektatzen dituzten gailuak existitzen dira? Kriptotxanponek aldaketa klimatikoan eragiten dute? Nola diseina daitezke tresna eta zerbitzu teknologikoak pertsona gehienek (haien adina edo desgaitasuna edozein izanda) erraz erabil ditzaten? Dendetako erosketa tike-tak laster faktura elektronikoa izango dira? Zer baliabide dau-de eskura informatikaren hainbat oinarri ikasteko? Nola laguntzen du adimen artifizialak minbizia tratatzeko sortu diren erradioterapia teknika berrietan? Testuen tratamendu automatikotik, posible da idazlearen sentimenduei buruzko informazioa lortzea?

MARTXOAREN 8A OSPATZEKO

Artikuluen bildumak Martxoaren 8aren bueltan osatuak izaten dira eta aurten ere halaxe izango da, egun hori ba-

liatuko baitute ale berezia fakultatean banatzeko. Aurten begirada zabaldu eta institutuetara begira ere jarri dira, horietan lantzeko oso material egokia delakoan.

Ana Zelaia Jauregik taldeko kideak azaldu duenez, «oso material interesgarria iruditzen zaigu gaztetxoekin hausnarketa txikiak abiatzeko; institutu mailan, DBHn, Lanbide Heziketan... Artikulu hauetan ez da bakarrik teknologiari buruz hitz egiten, teknologia horrek hainbat arlotan zer eragin sortzen duen ere lantzen da. Artikuluek aukera ematen dute hausnartzeko, emakumeak arlo horretan lanean ikusteko eta informatika zer den ikusteko; zenbat arlo desberdinetan aritzeko aukera ematen duen bistaratzeko».

E-makumeak taldea kezka batetik sortu zen 2000. urtean. «Informatikariari buruz sortu den estereotipoarekin kezkatuta gaude. Horrek guri

kalte handia eragiten digu, urte asko daramagulako Informatikan emakumeen kopurua nahiko txikia dela. Ingeniari-tza askorekin gertatzen den zerbait da. Horregatik sortu zen gure taldea. 2000. urtean hasi ginen aztertzen ea zer gertatzen ari zen. Aurreko belaunaldikoak gara gu eta guk Informatika ikasi genuenean askoz orekatuagoa zegoen kontua. Gure garaian erdi eta erdi ginen neskak eta mutilak. Joera hori Europa mailakoa da, orokorrean ari da jaisten Informatika ikasten duten emakumeen kopurua».

Beheranzko joera horren atzean arrazoi ugari dauden arren, E-makumeak taldekoek garbi daukate azken urteotan komunikabideetan eta iruditegi kolektiboan marraztu den informatikariaren estereotipoak pisua duela. «Garai batean agian ez zen hain bistakoa komunikabideetan eta gizarte-an oro har informatikariaren

Alboko orrialdean, Martxoaren 8aren bueltarako prestatutako bildumaren lehen orrialdea. Lerro hauen gainean, ale berezirako prestatutako zenbait irudi.
GAUR8

figura, agian ez geneukan bu-ruan sartuta estereotipo bat. Azken urteotan asko zabaldu da informatikariaren estereotipo jakina; pertsona 'friki' bat, askotan 'hackerra', ordenagailu bati pegatuta bizi dena, soziazialki oso trebea ez dena eta gizona».

2020-2021eko artikuluen bildumako sarreran E-makumeak taldekoek garbi esaten dute: «Komunikabideetan, oro har, informatikari buruz ematen den irudia ez dator bat informatikarien jardunarekin. Zokoren batean teklatuari itsatsita eta inolako kontaktu soziazialik gabe zeregin ilunen batean ari diren gizonezkoak ageri dira gehienetan. Bai, gizonezkoak... Baina emakume informatikariak ere bagaude, eta informatika erabiltzen dugu gizarteetan sortzen diren erronkei aurre egiteko. Bada garaia estereotipoak gainditzeko. Informatikariaren jarduna ez da iluna, ez du zulo batean lan egiten eta ez da derrigorrez gizonezkoa. Ale honen lagun dezake ikusarazten Informatika eta Teknologia nesken kontua ere badela».

Informatika munduan sortzen diren arazo eta gatazka errealetan ari dira lanean eta hori ere erakutsi nahi dute E-makumeak taldekoek, «gure lana normala da, munduaren arazoei begira gaude. Informatikak aplikazio asko dauzka eta talde lanean aritzen gara askotan. Diziiplina askorekin elkartzen da informatika, horiekin aritzen da elkarlanean. Garrantzitsua iruditzen zaigu Informatika benetan zer den azaltzea gaztetxoei eta emakumeak ere horretan ari garela erakustea».

Bilduma guztiak, hemen: www.ehu.eus/ehusfera/e-makumeak/gaur8koak



Olatz Arbelaiz Gallego

Donostiako Informatika Fakultateko irakasle eta ikertzailea, UPV/EHU

Mendiak ezagutzeko lagun berria

Garai batean mapa eta iparrorratza hartuta joaten ginen mendira. Ibilbideak proposatzen dituzten liburuak ere mordo daude etxean eta horietako askok nabaria dute urteetako erabilera intentsiboa. 2013. urtean Garmin etxeko GPS bat erosi genuen eta hainbat bizikleta zein mendi ibilbide haren laguntzaz egin genituen, baina badira urte batzuk, askotan mapa motxilan eraman arren, sakelako telefonoak gidatzen gaituena gure mendi ibilbideetan. 2020ko urrian Igor Leturiak *sarean.eusen* idatzitako artikuluan horretarako dauden aukeren azterketa zabala argitaratu zuen eta ezezagunak nituen hainbat aplikazio deskubritu zizkidan. Haien artean software librea den eta mapa libreak erabiltzen dituen *Maps.me* aplikazioa. *Wikiloc* edo *OruxMap*sek ez bezala, mendian ere mapetan agertzen diren bidexketan zehar nabigatzeko aukera ematen diguna. Oraintxe jakin dut, honen parekoa den beste bat ere badela *Komoot* izenekoak.

Azken hilabeteen ordea, beste aplikazio batek liluratu nau: *PeakFinder* (www.peakfinder.org) izenekoak, hain zuzen ere. Mendira joaten garenean ohikoa izaten da inguratzen gaituzten parajeak identifikatzen saiatzea. Lagunen artean beti dago norbait memoria hobea duena edo inguruan gehiagotan ibili dena eta hartaz fidatu behar izaten dugu, baina hemendik aurrera, lagun hori faltatu arren, *PeakFinder*rek egingo ditu haren lanak. *PeakLensek* eta *Cimas de Españak* ere egin ditzakete, baina era mugatuagoan. Aplikazioa ez da dohaiekkoa, ia 5 euro ordaindu behar dira. Baina behin bakarrik ordaintzen da eta kito.


Konputagailu jokoek erabiltzen duten teknologia bera erabiliz mundu osoan zehar, edozein posiziotan egonik bertatik ikusiko zenituzkeen mendien profilak eta haien izenak erakusten dizkizu eta haietan zehar birtualki hegan egin dezakezu. 850.000 gailur baino gehiago ezagutzen ditu. Mendian edo etxe barruan egon, GPSko posiziotik ala

emandako beste edozein posiziotik abiatzeko aukera ematen du. Alegia, oraintxe, artikuluko hau idazten ordenagailu aurrean eserita nagoen honetan, Aldura gainetik izango nukeen 360 graduko panoramikaren mendi guztien izenak dituen hiru dimentsiotako irudia ikus dezaket nire sakelakoan. Argazki kamera piztuz gero, profilek jasotako paisaiarekin bat egingo dute eta bat-egite hori zehatzagoa izan dadin, profila mugituz argazkiarekin bat egin eta errorea zuzentzeko aukera ere ematen du.

Teknologia eta eduki aske asko erabiltzen ditu aplikazioak. Elebazio-eredu digitala erabiltzen du; bi dimentsiotako koordinatu sistema batetik abiatu, eta algoritmoen bidez, lurrazalaren topografiaren hiru dimentsiotako irudikapen faltsua egiten du, alegia. Koordinatuen datuak iturri desberdinetatik eskuratzen ditu. Mundu osoak eskuratzen ditu erresoluzio altuko mapa topografikoak sortzea helburu duen eta Internetetik dohain deskarga daitekeen SRTM (*Shuttle Radar* misio topografikoa) proiektutik. Datu hauek osatzeko, Europakoak adibidez, Sony etxeak LiDAR (*Light Detection and Ranging* edo *Laser Imaging Detection and Ranging*) gailu bidez batutako Europako lurrazal eredu digitalak erabiltzen ditu.

Kokapen batetik ikus daitezkeen mendiak identifikatu eta izena jartzeko ezinbestekoak dira informazio sistema geografikoko (GIS) datuak. Horretarako iturri anitz erabili arren, nagusienetakoa OpenStreetMaps du aplikazioak, lineako mapen Wikipedia gisa deskriba genezakeena eta gutako edozeinek elika dezakeena. Egileak dioenaren arabera, falta den edo oker dagoen mendi izenen bat identifikatuz gero, OpenStreetMaps-en sartu eta 24 ordu barru aplikazioan agertuko da.

Bai mesede ona egin digutela tangoek! Izan ere, aplikazioaren sortzailea suitzarrak da, eta informazio sistemetako proiektu-kudeatzaile lanera ez itzultzeko goak bultzatuta, Argentinan garatu omen zuen proiektua, gauez tangoak dantzatzen ikasten zuen artean. •



Aplikazioak eskaintzen dituen bi ikuspegi mota.

BEHATXULOTIK

Juantxo EGAÑA



CEFERINO YANGUAS. GASTEIZKO UDAL ARTXIBOA

GASTEIZKO EMAKUME GREBALARIAK

Artikuluak ilustratzen duen irudiak Gasteizko Vicente Goikoetxea kalearen hasieran zegoen La Carmela zaku fabrikako langile talde bat erakusten du, 1936an. 30eko hamarkadako prentsak zaku fabrikako emakume langileen greba deialdien berri eman zuen, Sindikatu Bakarrak deituta, lan hobekuntzak eskatzen zituzten. 1932ko otsailean, Jose Maria Amilibia Arabako gobernadore zibilak, Acción Republicana alderdiko kideak, langileen greba debekatu eta protestei eutsiz gero grebalariak atxilotzearekin mehatxatu zuen. 1933an zaku fabrikako langileen grebak errepikatu egin ziren, Fournier karta fabrikako emakume langileek eta CNT, UGT eta SOV sindikatuek lagunduta. Alfredo Donnayk (1894-1986), poeta eta konpositore eta Gasteizko CNT sindikatu anarkistaren antolatzaileetakoak, emakume langile gasteiztarrei buruz idatzi zuen: «Antes no había en Vitoria más mujeres trabajando que naiperas y saqueras del Carmelo y casa Alfaro...».

bidaiari

naiz:-en bidaia aldizkaria euskaraz

Lurralde
berrietara
goaz



Indian santu

dagoeneko
zure
kioskoan
salgai

1,50€

eta gainera...

KALIFORNIA BEHEREA
MEXIKARRETIK GUTXIEN
DUEN MEXIKO

LABAR-ELIZAK
HARRIAK ZULATZEN
DITUEN FEDEA

AFRIKA HEGOALDEAN
MUGARIK GABEKO
BIDAIA

BALGERRI
MENDEBALDEKO
MUGALDE EZEZAGUNA

ZANZIBAR
KITEURFLARIEN
TOPALEKU TROPIKALA

Arditik ardira jolas erraldoia, istorio txikiak **Egin planak** Tromelin, esklabo ahaztuen uhartea; Korrika "HitzEkin"; dFERIA, "Oreka"
Arabako Bertsolari Txapelketa, "Aventureros" liburua **Hiriak laburrean** Oslo, bikingoak diseinuzko hiriburuan
Munduan pasieran "Venezia, La Serenissima"; "Imagine Picasso Immersive Exhibition"; "Game of Thrones" parkea;
Bainu erlaxagarriak eta sendagarriak; Gerran lapurtutako artelanak, ikusgai Bagdad-en

